

BENDEJA-SALTZAILEAK MUNGIako PLAZAN

Garazi Albizua eta Hegoa Álvarez

Lan hau Mungiako Udalak "Mungiako Andrazkoen Historia Begi Barriz Irakurteko" proiektua egiteko emandako ikerketa-azterlanaren bidez egin da



MUNGIA
UDALA

Bendeja-saltzaileak Mungiako plazan

AURKIBIDEA:

1– Sarrera: 3. or.

2– Podcasten nondik norakoak: 5. or.

3– Ikerketa: 13. or.

4– Ondorioak: 46. or

5– Bibliografia: 49. or.

SARRERA

“Bendeja-saltzaileak Mungiako plazan” proiektua lau ataleko podcast bat da. Emakume baserritarrak uhinetara eraman ditugu, metodo historikoa liburutatik kanpo utzitako rola, egun modan dagoen dibulgazio-tresna baten bidez ezagutarazteko.

Historia edo, hobeto esanda, metodo historikoa, iraganeko gertakariak biltzeko jardunbide izan behar da. Hala ere, tamalez, jardunbide horrek ez ditu beti bereganatu ezkutuan gelditzen diren hainbat presentzia historiko. Emakumeak diskriminazio handiak jasan ditu historian zehar, eta zer esanik ez dago emakume baserritarren bazterkeriaren inguruan.

Duela milaka urte, nekazaritzaren sorrerarekin batera, merkataritza ere jaio zen. Horrek uztetatik soberan zegoena beste produktu batzuegatik trukatzera eraman zuen nekazaria, eta merkataritzari esker, gainera, pertsonak beren jardueretan espezializatzen joan ziren. Herriko zein kanpoko jendearen artean sortutako loturak estutzeak sare zabala eraikitzen eta herrien nortasuna bultzatzen lagundu zuen.

Landa eremuko Euskal Herrian, emakumeek ortuan eginiko lana nabarmengarria eta goraiagarria izan da betidanik. Baserrietan beti dago zer egin, eta etxeko lanez gain, sutondoko lanez zein zaintza-lanez aparte, euskal emakumeek protagonismo handia izan dute ortuko “jeneroa” ereiten, zaintzen, batzen eta azkenik merkaturatzen. Baina non dira haien inguruko pasarteak? Haien lanaren eta bizitzaren inguruko dokumentazio historikoak? Gutxi dira, bai, emakume horien inguruko narrazioak.

Kapitalismoak beti izan du deserosoa den hori baztertzeko joera, eta kapitalismoaren garapenak nekazaritzan eragin krudela izan du familia-ekoizpenean, baita etxeko ekonomiek bizirauteko dituzten aukeretan ere. Ondo jakina da endemas, gizartearen zailtasunak bikoiztu egiten direla emakumea ardatz denean. Meillasoux-ek (1975) kapitalismoaren eta etxe- edo landa-ekonomien arteko harremana kontraesankor gisa ulertzen du, non kapitalismoa etxeko ekonomiaz baliatzen den eta, aldi berean, suntsitu egiten duen.

“Bendeja-saltzaileak Mungiako plazan” podcastak lau merkatu-egun entzungai ipiniko ditu, bendejeraren sorreratik gaur egunera.

Horretarako, gidoi bakoitzak bi zati izango ditu:

Lehenengo zatia, sarrera moduan, garaia eta pertsonaiak kokatzen dituen testu historikoa izango da; bigarren zatia, ordea, plaza bera agertuko duen fikzioa izango da: elkarrizketen hotsak, kaleak eta giroa soinu-uhinetara eramango ditugu. Horretarako, istorio bat sortuko dugu, garai hartako pertsonaiak erabilita.

Modu honetan, gainera, emakumeon baliabide indartsuenetariko bat erabiliko dugu: hitza. Emakumeek ezin izan dute euren izenarekin sinatu idazki asko. Beste batzuetan, ez dute hezkuntzarik jaso, beraz, ezinezkoa izan dute irakurtzea edo idaztea, sikiera. Baina komunikatu

gara, ahoz aho pasa ditugu kontakizunak, gertaerak eta, oro har, lagungarri izan ditugun hitzak. Goazen horiei guztiei arreta eskaintzera, natural-natural dugun esparruan: ahotsarenean.

Lanaren helburu nagusia, beraz, Mungiako emakume baserritarra, plazako emakume bendeja-saltzaileen historia agerraraztea da. Haren presentzia eguneratu eta hurbilekoa egitea. **Haien bizitza eta lana plazaratuko ditugu, eurek ortuko eta sukaldeko lana plazaratzen duten moduan.**

Emakumeek mendeetan pairatu dute haien lana bazterrean uzteko joera, ofizialtasunetik kanpo mugitzeko beharra. Historian zehar egindako ekintzak ez dira ohikoak izan; haien ekarpenak ez dira normaltzat ulertu. Emakume baten parte-hartzea edo ekarpena edozein izanik ere, salbuespen modura ikusi izan da beti. Araua berresten duen salbuespena, alegia.

Inoiz baino garrantzitsuagoa da, beraz, haien memoria omentzea. Horretarako, ez dago modu erakargarriagorik historia istorioen bidez kontatzea baino.

Podcastaren bidez entzuleekin konektatu eta komunitate bat sortzeko asmoa dugu. Historiak berak utzitako apurrak bilduko ditugu, elkarrizketa eta ikerketa-lanen bidez, eta emakume bendeja-saltzaileen emozioak, bizipenak, oroitzapenak eta abar kontatuko ditugu, entzulea bera plazan dagoela sentiaraziz. Emakume langile horien ahalduntzea presente egingo dugu, izan ere, ezkutuan gelditu diren emakume horien testigantzak ezagutzera eman nahi ditugu. Memoria historikoa indartuko dugu, gogoratzen ez diren horien memoria, hain zuzen ere.

Honekin guztiarekin sortu dugu: “Bendeja-saltzaileak Mungiako plazan”.

PODCASTAK

1. atala

Garaia: SORRERA

XIV. mendean gaude; Mungian, 1412. urtean zehazki. Lau urte lehenago elizatea sortu zen eta merkatua dagoeneko martxan dago. Elizaren garrantzia pisuzkoa da biztanleriarengan, eta gizarte estamentalaren banaketa nabarmena da momentuko sozietatean.

Bendejeraren ezaugarriak nabarmenak

Bendeja-saltzailearen figura orokorrak ezaugarri ezberdinak izango ditu jatorri estamentalaren arabera (ikus dokumentazioan ageri diren ezaugarri zehatzak 41. or.). Hala ere, nabarmentzekoa da **naturaren inpronta**, bendejaren lanketa-sasoiaren arabera izango baita, eta bendeja lantzearekin batera egin beharreko bestelako beharrak gizarte estamentalaren arabera izango dira.

Ataleko pertsonaia nagusiak

Narratzaileak podcasta girotu eta kokatu egingo du. Sentimenduen eta pentsamenduen ahotsa izango da. Haren ikuspuntutik ezagutuko ditugu emakume horien beldurrak eta ametsak. Entzulea garai hartako bizitzaren lekuko izango da. Natura bera beste protagonista bat izango da: ekaitzak, zuhaitzak haizearekin dantzan, basoa uluka eta abar.

Atal guztietan narratzailea ahots bera izango da: historiaren ahotsa. Baina, kasu honetan, historia normatiboa izan beharrean, bendeja-saltzaileak bere gain hartuko du. Emakumeari lekua eta agertokia emateko asmoz, bendeja-saltzaileari gorazarre egingo zaio.

Narratzaileaz gain, hiru familia ezagutuko ditugu:

Lehenengo familia: bandoetatik alde egindako familia bat da, Mungian babestu dena.

– Bendejera: Maria Antonia

Lan-karga handiena duena da, eta bere bendeja oinarritzak izango da: sagarrak, madariak arbia, mizpira, intxaurrak eta ahuntz-esnea.

Beldur puntu batekin doa merkatura; lortuko al du trukean behar duena?

Bigarren familia: *millites* estamentutik eratorritakoa da; harroputz puntu batekin heldu da herrira.

– Bendejera: Maria Jesusa

– Neskamea: Margarita

Maria Jesusak Margarita gaizki tratatzeko joera du. Erruduna bilakatzen du, ez badu merkatuan nahi duena lortzen; jeloskor jartzen da jendeak besteen produktuak erosten baditu eta ez bereak. Merkatura eramaten dituen produktuak hauek dira: garia eta ogia, garagarra, behi-esnea, arrautzak, otzarak, arbia, sagarrak, madariak.

Hirugarren familia: lur laua komunitatearen familia da. Merkatuan trukean emateko basotik lortutako produktuak hartuko ditu.

– 1. Bendejera: Oneka

– 2. Bendejera: Nekoiza

Elkarren artean harreman ona dute eta trukean erraz lortuko dute behar dutena. Haien produktuak: eztia, erbia, gaztainak, intxaurrak, mizpira, zurezko mahai-tresnak eta sendabelarrak.

Sinopsia

Hiru familia hartuko ditugu istoriorako. Eta hiru solas paraleloki eramango ditugu: bai etxean gauzak antolatzen ari direneko momentua, baita plazara heldu bitarte izandako elkarriketak ere. Ondoren, plazan, hiru familien arteko solasa agertuko da.

Etxean izango duten solasa merkatura eraman behar dutenaren ingurukoa izango da, lanak banatzeko moduaren ingurukoak, baina urduritasuna ere sumatuko da. Familia batek ez du oso argi izan Mungia herrira etortzearena, beldurtuta egin du. Bandoetatik alde egin nahian. Beste familia, ordea, *Millites* estamentutik eratorritakoa da, eta Mungiara joatearekin batera lortu du Jaun Andrearen menpe ez jarraitzea, eta harroputz puntu batekin heldu da herrira. Hirugarren familia lur lauako komunitateko familia da. Trukean eramango ditu basotik lortutako produktuak, batez ere. Gainera, interesa izango du herriko bizitza nolakoa den jakiteko, eta informazioa bilatuko du basora bueltatzen denean kontatzeko.

Familia bakoitzaren bendeja diferentea izango da.

Bidean egin behar dutenaren inguruko solasa entzungo da; hemen ere familia bakoitzaren beldurrak, ahultasunak eta indarrak agertuko dira.

Eta, azkenik, plazan, elkarrekin egongo dira, euren artean trukean arituko dira, baina baita lehian ere.

2. atala

Garaia: bendejera karlista

Bigarren atalean, bendeja-saltzailea lehenengo karlistaldian kokatu nahi dugu. Horretarako, zenbait ideia hartuko ditugu kontuan:

1840. urtetik aurrera, lehen guda karlistaren amaierarekin batera, euskal gizarteak hainbat aldaketa jasan zituen, bereziki industrializazioak ekarritako eskaria dela-eta. Hortaz, 1846. urtean funtsatuko gara Mungiako bendeja-saltzaileen plaza-egun bat irudikatzeko.

Bendejeren arteko elkarriketetan gudan zehar bizitako egoera politikoa; gudak eta industrializazioak familietan izandako eragina; emakumeek gerran izandako partaidetza, eta bendeja-saltzaileen ohituretan murgilduko gara.

Bendejeraren ezaugarriak nabarmenak

Garai honetako bendeja-saltzaileek erregimen zaharretik erregimen berrirako transizioa bizi izan zuten. Landa-eremuko bizimodua aldatzen hasi zeneko garaia izanenez, gizarteak aldaketa sakonak jasan behar izan zituen, eta horien artean baita bendejera askoren bizimodua ere. Askok agur esan behar izan zieten seme-alabei, herria utzi eta hirietara alde egin zutenei.

Karlistaldietan asko eta asko biktima bilakatu ziren, hortaz, sufritu behar izan zuten emakumeak izan ziren; hala ere, egon baziren aktiboki, modu batera edo bestera, horietan parte hartutakoak.

Ataleko pertsonaia nagusiak

Bigarren atal honetan, kontakizun nagusiaz gain, oraingoan pertsonaien barne-solasak agertuko ditu narratzaileak. Garaiko kezkak, beldurrak, erronkak eta baita pertsonaiek dituzten desioak ere lehen lerrora ekarriko ditu. Atalaren giroa emozioekin estuki lotuta entzungo da. Horren helburua hau da: emakumeek betidanik berezkoa duten alde emozionalari balioa ematea.

Horrez gain, atal honetan bereziki garrantzitsuak izango dira: garaiko tentsioak erakusten dituzten soinuak, baina baita abereen soinuak eta merkatuko bigarren mailako elkarriketak ere.

Narratzaileaz gain lau bendeja-saltzaile izango ditugu hizketan.

Lehenengo bendejera: Pakita

Bere semea Boluetako “Santa Ana” siderurgia-fabrikan hasi da lanean. Alarguna da eta semea du laguntza bakarra. Orain lan-karga handitu zaio bendeja-lanketarekin eta gurasoen seme-alaba txikien zaintzarekin.

Zazpi urteko alaba berarekin joaten da plazara.

Bigarren bendejera: Luisa

Ez da guztiz liberalen kontrakoa. Bat dator alderdiaren ideia batzuekin. Plentzian lehengusina bat du eta bertako emakume liberalen taldekoa izan zen.

Hirugarren bendejera: Maria Pilar

Soldadu zaurituak inguruko baserrietara eramandakoa da; sendatzen lagundu zien. Gaur egun etxean ez dute diru nahikorik.

Laugarren bendejera: Mari Carmen

Gazteena, familia karlista batekoa da.

Plazan topatuko dena: otzarak, esnekiak, barazkiak, ortuariak, arrautzak eta opilak.

Sinopsia

Hasieran, plazako zaratak entzungo dira, eta berehala bendejera baten ahotsa entzungo da. Pakitak guztia aldatzen ari dela dio; gazteak herrietatik alde egiten ari direla. Oinarri horretatik hasita, lau bendeja-saltzaileen elkarriketa izango dugu entzungai.

Baserrietako ohiturak galduko diren beldur da aipatutako ama; liberalek irabazi zuten guda, eta ez da fio etorkizunak zer dakarren. Horrek guda-garaiko pasadizoak dakartza bueltan, eta saltzaile bakoitzak badu zer esan. Luisa ideia liberalak zabaltzen saiatzen da.

Maria Pilar baserriko eta plazako lana utzi eta Errenteriara joatea pentsatzen ari da gizonarekin batera, berak ere “Sociedad de Tejidos de Lino” fabrikan lan egiteko eta etxeko ekonomian laguntzeko asmoa du. Mari Carmen elkarriketan zehar hainbat galdera egingo dituen bendeja-saltzailea izango da; guztien baieztapenak zalantzan jartzen dituen.

3. atala

Garaia: Gerra Zibilaren ostean girotutako egun bat

Bendejera saltzaileen hirugarren atala izango da hau. Kasu honetan, XX. mendeko bendejeraren merkatu-egun bat entzungo duzue.

Zehazki, Gerra Zibilaren ostean girotutako egun bat. Izan ere, gerrak eta gerraosteak ez dute bendejeraren lana guztiz eten. Are gehiago, familia askoren biziraupena emakume bendejeraren eskuetan dago.

Bendejeraren ezaugarriak nabarmenak

Emakume gogorak ziren; familiaren ongizatearen oinarri bilakatu ziren, “estraperloan” eta sendagile aritu baitziren bendeja saltzeaz gain (ikusi dokumentazioa 55. or.).

Ataleko pertsonaia nagusiak

3. atalean narratzaileak berebiziko garrantzia izaten jarraituko du. XX. mende korapilatsuari ahotsa emango dio. Hala ere, xede nagusia izango da Mungialdeko emakume baserritarren ahoz ahoko ezagutzaren inpronta agerian jartzea. Hau da, narratzailea izango da ezagutza hori: emakumearen ahotsaren bozeramailea. Gure amonen ohituren transmisioaren haria.

Egoera girotzeko, atal honetan lehen aldiz autoen burrunba entzungo da, eta horrek animaliei nola eragiten dien. Horrez aparte, astoaren arrantza, trenaren zarata, merkatuko elkarriketak eta gerraren oihartzuna entzungo dira.

Narratzaileaz gain, hauexek izango dira pertsonaiak:

Lehenengo bendejera: Gloria

Merkatura joan aurretik emakume batekin egongo da “estraperloa” lortzeko.

Bigarren bendejera: Felixa

Gloriaren auzokidea da, eta berarekin hizketan egongo da plazara joan aurretik. Egundorretan ez da merkatura joango sendagile lana egiteko.

Hirugarren bendejera: Maria Dolores

Errepublikaren aldekoa izateagatik aurreko hilabeteetan plaza erdian kaskamotz utzi eta jipoitu zutenetik merkatura etorri den lehen aldia da. Beraz, beldurtuta dago.

Laugarren bendejera: Joxefina

Garaien bandokoa da eta ez da beste bendeja-saltzaileekin fidatzen, bera ere beldur da ez ote dioten leporatuko etsaien laguna izatea. Nahiko traumatizatuta dago inguruan ikusten duen indarkeriagatik.

Sinopsia

Merkatu-eguna da eta giro tirabiratsua dago. Hasi dira herria berreraikitzeke bortxazko lanak, eta jende ugari dabil Mungian. Soldadu batzuk gerturatu dira bendeja-saltzaileengana eta Felixaren inguruan galdetu diete. Momentu horretan, bendejera bakoitzaren beldurrak eta indarrak agerian jarriko dira. Esaterako, Joxefinak nahiz eta beldur asko izan eta Maria Dolores gaizki tratatu, amaieran saldu gabeko zenbait produktu emango dizkio.

4. atala

Garaia: Gaur egun

XXI. mendean gaude, gaur egungo ostiral arrunt batean. Kasu honetan, erosleak zein saltzaileak agertuko dira. Salerosketa tradizionala eta digitala agertuko dira. Baita plazako egoera ere, egungo gizarteak eraginda.

Bendejeraren ezaugarriak nabarmenak

Bendeja-saltzaile gutxi daude. Belaunaldi-aldaketak gogor jo dio plazara saltzen joateko ohiturari. Orokorrean saltzaile nagusiak dira, hala ere, krisi klimatikoak eraginda, badaude bendejera gazteak ere, lurraren ustiaketa eta kontsumo arduratsuaren aldekoak.

Ataleko pertsonaia nagusiak

Aurreko ataletan bezala, narratzaileak, oraingoan ere, pisu handia izango du; hura izango baita pertsonaiek adierazten ez dituzten kontzeptuen eleduna, mintzalaria. Guden momentuan kokatuko gaitu eta giroa sortzeaz arduratuko da; pentsamenduak, sentimenduak eta xehetasunak adieraziko ditu.

Atal honetan egungo soinu ugari agertuko dira; hala nola trafikoa, jendea presaka, mugikorrak joka, merkatuko elkarrizketak eta abar.

Narratzaileaz gain, hauexek izango dira pertsonaiak:

Lehenengo bendejera: Arantzazu

Bigarren bendejera (iloba): Kattalin

Amona-iloba dira eta batera lantzen dute baserriko lurra. Gazteak amona laguntzeko erantzukizuna hartu du bere gain. Tradizioarekin jarraitzeko asmoa du, baina egungo garaietara egokituta.

Hirugarren bendejera: Maite

Arantzazu baino gazteagoa da (54 urte). Elikagaiez gain, eskuz egindako produktuak eramaten ditu plazara.

Lehenengo eroslea: Peru

Erretiratuta dagoen gizona da. Aukera eta denbora duenez, plazara doa ostiralero.

Bigarren eroslea: Lorea

Bi haurren ama da eta garrantzi handia ematen dio zero kilometroko produktuak erosteari. Sasoiko eta bertoko produktuak erosteko beharrezana dagoela uste du eta nahiz eta lanpetuta ibili lanarekin eta haurren zaintzarekin, ahal duen guztietan Mungiako plazara doa.

Sinopsia

Plazaren alde batean emakume nagusi bat dago bere bendeja saltzen; ondoan bere iloba. Horrek mugikorra du eskuan eta amonaren bendeja saltzeko sare sozialetan perfil bat sortu du. Badaki gero eta bendeja-saltzaile gutxiago daudela, eta horren aurrean zerbait egin nahi du. Belaunaldi-aldaketak ere desberdintasun handiak jartzen ditu agerian. Ilobak egungo teknologiak ahalbidetu diezaiokeenaren inguruan hitz egiten dio; amonak, ordea, tradizioz eta ohituraz egiten denaren inguruan.

Beste postu batean Maite dago. Nekazaria da eta horretaz bizi da. Generoaz gain, bestelako produktuak saltzen ditu. Eguzki-loreak, kandelak, eskuz egindako zumezko otzarak, margolanak eta abar. Lorearekin dabil hizketan: bi haur txikiren ama langilea da eta ez du ia denborarik plazara etortzeko. Hizketaldira Peru hurreratuko da; erretiratua dago eta berak badu plazara joateko denbora. Elkarriketa honetan gure gizarteak merkatu txikietako ohiturak aurrera eramateko dituen zailtasunez arituko dira.

0– IKERKETAREN PROZEDURA

Emakumeak libreagoak ziren kapitalismoaren aurretik?

Emakumea zer den definitzea ezinezkoa da; emozioarekin eta sentipenarekin zuzenean lotutako esanahi ez-kuantitatiboa baita.

Sistema kapitalista batean, kontzeptuen menperatzeak behartzen du datuen ezagutza matematikoa; horregatik, “emakume” hitzari esanahi zehatza egotzi dio kapitalismoak. Ezinbestean, emakume normatiboa adieraziko du: emakume burgesa, zuria, langilea, *familiarra* eta heterosexuala, hain zuzen.

Emakume normatiboa emakume aurrerakoia, efizientea eta askea da gizarte kapitalistaren funtsan. Aitzitik, batez ere azken urteotan idatzitako saiakera askok zein gizartean entzundako aldarri askok zirrikitu bat ireki diote emakume estandarrari, eta bertatik bestelako errealitate bat aldarrikatu dute. Hala nola Silvia Federicik botatako galdera xaloak —*emakumeak libreagoak ginen kapitalismoaren aurretik?*—ezagutza-bide berri bat ahalbidetu du.

Erantzuna ezagutu gabe, galderak sortutako bidezidorra hartuko dugu emakume benedejara nor zen ikertzeko. Mungia eremu aproposa da ikerketa lurrartzeko, herriaren kokapen zein historia politiko geografikoagatik.

Mungiako emakume benedejara gizarte prekapitalista batean sortu da. Garai hori ezin aproposagoa da kapitalismoak defendaturiko eta feminismoaren lehen olatuak aldarrikaturiko lelo bat ezbaian jartzeko: emakumearen askatasunaren lorpena lan-munduan sartzearekin batera lotutako ideia.

Kuriosoa da pentsatzea ekonomikoki independentea izateak askatasuna bermatzen duela. Esaldi oso orokorra da, lausoa. Pixka bat arakatuz gero, galdera sorta bat egin dezakegu, hain zuzen ere esaldi motz, efiziente eta aurrerakoi horrek beregain hartu duen errealitate konplexua ulertzen saiatzeko:

- Nola da, ba, menpekotasun ekonomikoa izatea, nortzuk dira independenteak, zer esan nahi du horrek?
- Kapitalismoaren aurretik, nolakoa da ekonomia?
- Zein da ekonomia prekapitalistaren rola gizartean eta zer paper du pertsonen bizitzan?
- Zergatik dago emakumea harrapatuta, gatibu?
- Eta, gatibu badago, horrek ba al du harreman zuzena ekonomikoki independentea izatearekin?

Emakume normatibotik aldenduz, jakin-minak bultzatuta, bai bazterrean geratutako egoeretan, bai konplexuegiak diren errealitate anitzetan jarri nahi dugu ikusmira.

Eta beraz, galduko gara, galdu behar garela, ezagutza hegemonikotik at gure ikerketa-lana egiteko.

Bendejeraren sorreratik gaur egunera egindako bidaia luzean, testigantzak topatuko ditugu, emozioei kasu egingo diegu, une oro galdera berriak sortuko ditugu eta momentuan bildutako eta jasotako informazioarekin horiei erantzuten saiatuko gara.

Hasteko, bada: nortzuk eta nolakoak ziren Mungiako plazara heltzen ziren bendejerak?

Hiruki gatazkatsua

Ikerketa-lanerako egindako irakurketetan beti izango dugu emakumearen rola begi-bistan, batez ere, honako rol hauek bereizi ditugu: emakumea familiaren barruan, lan munduan, gizartearen barnean eta emakume gizakia. Marina Sagastizabalek proposatutako *Hiruki gatazkatsua*-k nola eragin dezakeen aztertu nahi izan dugu. Marina Sagastizabalek bereizketa hau egin du:

(...) *Hiruki gatazkatsua*-k ordaindutako lana merkaturatutako lana dela azaltzen du, boterea sorrarazten duen lana, ez baititu diru-sarrerak bakarrik sortzen, ezpada botere soziala eta prestigioa. Aldiz, etxeko lanak eta zaintza-lanak emakumeek ordaindu gabe egiten dituzten lanak dira, ez dute botererik sortzen, eta, merkaturatzen direnean, gaizki ordaindutako lanetan bilakatzen dira, prekarizazioa emakume gehienek ezaugarri bihurturik. Azkenik, hirugarren ertz gatazkatsua dugu: bi lan mota horiek —ordaindutakoa eta musu-truk egiten dena— emakumeek duten parte-hartze politikoan ere eragina dute. Egileak argi erakusten du emakumeek lan-karga handiagoa dutela, gizonek baino lan gehiago egiten dutelako, eta horrek denbora gutxiago uzten die; gainera, politika egiteko eta espazio publikoa hartzeko uzten dien denbora zatitua eta ezegonkorragoa da. (...)

Hortik abiatuta, gure hiruki gatazkatsua prestatu dugu: *emakumea gizartean* (merkatua, politika, harremanak), *familia barneko emakumea* eta *emakume pertsona* bereizita. Emakume batek arestian aipatutako rol bakoitzari bere bizitzaren zenbateko ehunekoa eskaini ahal dion imajinatu nahi izan dugu.

Nahiz eta guztiz alegiazkoa izan, ariketa interesgarria izan da bizitza denborarekin lotzeko. Eta hortik tiraka, oinarritzko galdera bat egin dugu: zenbat egin dugu lo?

Nekeak berebiziko garrantzia du emakumearen garapenean. Lo egitea ezinbestekoa da kalitatezko bizitza bat izateko. Nolakoa da emakumearen eta nekearen arteko harremana? Zenbat denbora eskaini dio emakumeak lanean egoteari? Eta pentsatzeari?

Ezin egiazta daitekeen arren, ikusita arlo bakoitzak emakumearen rol bakoitzean duen garrantzia, eta naturak berak duen arrastoa, taula batzuk irudikatu ditugu **gogoeta** bezala, eta “hiruki gatazkatsua” atalean jarri ditugu.

Elkarriketak

Arestian aurkeztu ditugu egindako elkarriketen transkripzioak: elkarriketatuen izenak ezkutuan gelditu dira. Transkripzioak lan idatzian besterik ez dira agertuko eta ezin izango dira zabaldu ezta partekatu ere.

Garrantzitsua iruditu zaigu atal honetan agertzea pentsatutako galderen gidoi orokorra: emakumearen ikuspegia, garrantzia eta bizipena azaleratzen saiatzeko egindako galderak, eta baita, azkenean, elkarriketak berak sortutako gidoi berria ere.

Hori horrela egitea lagungarria izan da ondorioak ateratzerakoan. Izan ere, aztertu nahi izan dugu zer alde dagoen gidatutako elkarriketaren eta momentuan bertan elkarriketatuarekin sortutakoaren artean.

Emakumearen garapena, maiz, arauz kanpo gertatu da. Heteropatriarkatu matxista eta zuriak ez ditu emakumeak bere horretan ikusterik izan, gizon zuriaren moldera egokitzera behartu du emakumea beti, behintzat, haren lana ikusgai ipini duenean. Bestela, are okerrago, emakumeak ikusezin bilakatu eta isilarazi ditu sistemak.

Horregatik, nahiz eta oso ariketa xumea izan, gidatutako galderek sortutako erantzunen eta gidatu gabe esandakoaren arteko bereizketa aztertu nahi izan dugu.

Audrek Lordek esan zuen bezala: ezin da jabea garaitu haren armak erabilita. Gure ikerketan lanak dituen osagaiak, ordea, tresna normalizatuak dira, beraz, emakumeok historian zehar desagerrarazi gaituzten tresnen antzekoak dira gureak. Zelan heldu horiei gure historia erakutsi ahal izateko, gurea izan ez dugun bidea erabilita? Bada, kontrastearen bidez. Ikerketaren harira, normalean, bazterrean geratzen diren datuak, emozioak eta bizipenak azaleratuko ditugu. Eta horiei heltzeko modua, gidioa apurtzea izango da askotan.

1-IKERKETARAKO DOKUMENTAZIOA:

1 – Bendejaren sorrera (XIV-XVIII)

Testuingurua (XI-XVIII):

Elizaren garrantziaz hitz egin behar dugu, bendejera noiz, nola eta zergatik sortu den ulertzeko. Gizarte estamental batean, non botere-lehiak pil-pilean dauden, elizak oso rol garrantzitsua izango du: erlijiotasunetik harago edota aparte, elizak botere ekonomikoa bermatuko du. Hala nola *hamarrenak* kobratuko zaizkie eliza ondoko biztanleei eta, beraz, eliza kontrolatzea aberastasun-iturria izango da. Hori dela medio, familia batzuk elizen jabe izaten saiatuko dira, familiako norbait bertan jarriz.

XI. eta XII. mendeetako gizarte estamentalaren banaketa ulertzeko, bi errealitate izan behar ditugu kontuan: alde batetik, botere militarri eta erlijiosoari men eginez sortutako hierarkia piramidala, hots, *comites* eta *seniores* delakoak, *milites* eta *collazos* gisa ezagutzen zirenak; eta, bestetik, hortik at, lurra lantzen zuten pertsona libreek sortutako estamentua, *homines* esaten zitzaiena, hain zuzen.

Galdera bat etorri zaigu burura:

Eliza hitzak zer biltzen du?

Badakigu monasterio asko agertuko direla Mungia herria sortu aurretik Mungialde osotik sakabanatuta. Handik eta hemendik eraikita, monasterio horien xedea izango da gertuko biztanleriari hamarrena kobratzea. Beraz, aberastasun-iturri bat da, basogintza eta lurraren ustiaketa lez.

Aberastasun-iturri horiek garatuz joango dira. Denboraren poderioz, burdinolak agertuko dira, errotak, abeltzaintza eta abar. Eta monasterioen eta elizaren kasuan, erlijioaren hegemonia eta boterea.

Esan bezala, aberastasun-iturri bat izanik, familia aberatsek, hau da, *comites* eta *seniores* bezala ezagututakoek, ustiaturako dute hasierako eliza. Guk gaur egungo enpresa bat balitz bezala ulertu dugu orduko eliza hori. Ugazaba edo nagusi batek enpresaren kapital materiala eta immateriala ustiaturako ditu, eta ugazaba hori *seniors* bat izango da.

Egungo eliza heldu aurretik, garapen hau posible izan litekeela uste dugu:

1– Eliza enpresa: Elizak jabearen nortasuna izango du. Berak aztertuko du zer lortu nahi duen eta zer nolako harremana garatuko duen ondoko biztanleriarekin. Beraz, posible da pentsatzea eliza lagunkoia izan daitekeela, batzuetan, gertuko arazoez jabetuta; eta, hotza edo zapaltzailea besteetan.

XI. mendean, Nafarroako erregeak pertsona ez erlijiosoei elizaren jabe izatea debekatuko die. Halere, badago informazioa esaten duena XIV. mendean oraindik ere bazirela jabe laikoak (izan ere, Calahorran, Gaztelan eta Iruñean Joan I.a erregeari zera eskatu zioten: patrono laikoa kentzeko, eta erlijio kristauarekin harreman zuzena zuen apaiz bat jartzeko, elizako zerbitzua ez baitzen behar bestekoa. Horregatik, eta Mungia herriaren sorrera noiz eta nola gertatu zen ikusita, uste dugu gure kasuan ere elizaren jabetza laikoa mendeetan zehar gertatu zela).

2— Eliza estrategikoa: Mungia herria sortzearekin batera, elizak bestelako rola jokatu du. XI. mendean San Pedroko eliza izango da eliza-oinarria eta Calahorrako diozesia egingo da horren kargu. Eliza estrategikoa deritzogu, familia boteretsuekin, kasu honetan Villela familiarekin, tratua egingo duelako. Eliza herrian ezartzeak, biztanle-kopuru handia izatea ekarriko du, beraz, haren ustiaketak etekin handiak emango ditu. Gainera, momentu honetan, elizak badu erlijioarekin lotutako pertsona bat nagusi. Eta horrek bi modutan eragingo dio biztanleriari: espiritualki eta ekonomikoki.

Bestelade, oraindik badira hainbat eliza eta monastegi Mungialdetik sakabanatuta. Horien funtsa, batez ere, biztanleak batzea izango da eta gai sozialen eztabaidei bidea zein lekua ematea. Ondoren, plazara eramango da eztabaida sozialen gunea, eta horrek botere aldaketa bat eragingo du. Baina momentu hori iritsi bitarte, elizaren eragina erabatekoa izango da gertuko biztanlerian, kasik, ideologia anitzeko auzoen sortzaile eta babesle izanik.

3— Eliza egonkorra: jada ez du familia batek elizaren jabetza izango. Erlijio kristauaren barruko botere-hierarkiak kudeatuko ditu eraikinak. Aurreko eta gaur egungo elizaren arteko trantsiziozko eliza izango da. Kapitalismoaren sorrerarekin eta Gaztelaren nahi inperialistekin bat, eliza honek biztanleriaren kontrako zenbait ekintza bideratuko ditu. Ezagunena sorgin-ehiza da. Kasu batzuetan gainera, familia baten baserriaren jabetza beregain hartuko du: emakume batek herentzian baserria hartzekotan¹, edo seme nagusiaren herioa gertatzen denean, baserriaren boterea bereganatzen saiatuko da, ondoren, baserri hori beste norbaiti egokitzeko.

4— Egungo eliza

Eta zergatik iruditzen zaigu interesgarria hori guztia? Bada, emakumearen garapena bide horretan aztertu nahi dugulako.

Elizaren balizko lehenengo bi garaiak interesgarrienak iruditzen zaizkigu lanaren hasierako puntu honetarako. Lehen garaia, geure buruari elizaren jabetza emakume batena ote zen galdetzea ahalbidetzen duelako; eta, bigarrena, Mungia herria sortzeko ezinbestekoa izan zelako, eta herriaren sorrerarekin batera, merkatua heldu eta bendejera agertu zelako.

Bestalde, esan dugu gizarte estamentala paraleloki ulertu behar dugula, botere erlijiosotik eta botere militarretik at, bestelako estamentu bat zegoelako: lurra libreki ustiatzen zutenena, “herri xehea” bezala ezagutuko duguna.

¹ Baserriaren oinordetza-legea aldatu.

Herri xehe horren inguruan, ezer gutxi dakigu. Lurraren ustiaketa egiten zuten pertsona askeak zirela irakurri dugu. Bai emakumeak, bai gizonak izan zitezkeen lurraren arduradun. Askotan, basoak ziren euren ustiaketa-iturri nagusia.

Garai beltzak heldu zirenean, “gaizkiletzat” jo zituzten pertsona horiek. Hain zuzen ere, momentu hartan, bandoak sortu ziren. Ezagunenak ganboetarrak eta oinaztarrak dira.

Mungia herria sortzeko arrazoietako bat honako hau izan zen: gaizkileengandik babesteko leku seguru bat sortzea.

Nolakoa da gizarte honen bizitza? Eta, zehazki, emakumearena²?

Irakurritakoari sor, herria sortu aurretik emakumeak zuen rola jarraian egin dugun bereizketaren baitan aztertu dezakegu:

Gizarte estamentalaren barnean pentsatutako emakume rol batzuk:

a) *Comites eta seniores* taldeko emakumea:

Ustezko ezaugarriak:

- Emakume aberatsa da.
- Hezkuntza jasotzeko aukera du (etxeke irakaslea izango du).
- Egunekeo gizartearen politikan parte hartzeko aukera du.

Ustezko egunerokoa:

- Ez du arazo askorik jatekoa lortzeko. Familiaren aberastasun-iturriak zaintzeko lanak hartuko ditu: dela horiek bisitatu, dela horien inguruan hitz egin. Erabakiak hartuko ditu eta aginduak emango ditu.
- Gosea eta gaixotasunak ez dira lehen lerroko ardurak izango, horiek ekiditeko tresnak izango dituelako.
Mezara joango da. Eta elizak ahalbidetzen duen topaketaz baliatuko da, inguruko biztanleriarengan eragiteko.
- Posible ote zen emakume hori Eliza baten jabetza izatea? Berak antolatzea familiaren aberastasun-iturriak?

b) *Milites* taldeko emakumea:

Ustezko ezaugarriak:

- Emakume aberatsaren eta pobrearen arteko emakumea da.
- Hezkuntza jasotzeko aukera izango du, baina ez familiaren barnean. Mojekin batez ere lortuko du hezkuntza hori; horrela, moja izateaz gain, aukera izango du etxeke irakaslea izateko.
- Ez du zuzenean parte hartuko gizartearen politikan, baina aukera izango du zer gertatzen ari den jakiteko.

Ustezko egunerokoa:

- Jateko nahikoa du, baina ez sobera.

² Argitu nahi dugu ikerketa hau egiteko “emakume” hitza gizartean hartutako rol kultural eta politiko bezala ulertu dugula, eta, beraz, emakumearen errealitate politiko eta kulturala ulertzeko ideiak bezala joko ditugu.

- *Comites* taldearentzat zuzenean egin dezake lan, batez ere irakasle eta zaintzaile gisa. Ez dugu daturik jakiteko militarki lan egiterik duen; badirudi ez dagoela zaldun emakumerik garai horretan. Baina gorputzen baldintza fisikoak direla eta, gehi garai hartako armen pisua dela eta, ezpata baino, ehizarako arkua edo aiztoak erabiltzea ditu. Gainera, uste dugu bandoetako borroak gertatzen direnean, *Militesen* gehiengoak borrokatuko zirela, emakumea izan zein ez.
- Posible ote zen emakume hau zalduna izatea?

c) Collazos taldeko emakumea:

Ustezko ezaugarriak:

- Emakume pobrea da.
- Ez du hezkuntza jasotzeko aukerarik izango.
- Goseteak eta gaixotasunak lehen lerroko ardurak izango ditu.

Ustezko egunerokoa:

- Jateko gutxi izango du. Horrek baldintzatuko du bere egunerokoa; gosea ez pasatzeko janaria lortzen saiatuko da ahal duen modu guztietan.
- *Comites*erako edo *Milities*erako egingo du lan. Euren aberastasun-iturriak ustiatzen egingo du lan, bai basoan, bai nekazari, bai etxe barruko lanetan.
- Posible ote zen emakume hau gizonekin batera maila berean lanean egotea?

Herri xehearen barnean pentsatutako emakume rol nagusia:

a) Bandoetako emakumea

Ustezko ezaugarriak:

- Komunitatean hasitako emakumea da.
- Hezkuntza jasotzeko eta emateko aukera izango du.
- Goseteak eta gaixotasunak lehen lerroko ardurak izango ditu.
- Etxeak taldeka batzen ziren ermiten inguruan, kopuru txikietan.

Ustezko egunerokoa:

- Jateko aski izango du.
- Komunitateak batez ere basoak ustiatuko ditu. Garia landuko du, abereentzako janaria.
- Naturaren inguruko ezagutza sakona izango du.
- Posible ote zen emakume hau antzinako medikuntza naturalari lotuta egotea?

b) Bandoetatik kanpoko emakumea

Ustezko ezaugarriak:

- Familia-talde txikietako emakumeak izango dira.
- Hezkuntza jasotzeko aukera gutxi izango dute.
- Etxe ondoko lursailak ustiatuko ditu.
- Goseteak eta gaixotasunak lehen lerroko ardurak izango ditu.
- Etxeak ermitatik urrun kokatuko dira, baita beste etxeetatik urrun ere. Sakabanatuta.

Ustezko egunerokoa:

- Jateko gutxi izango du, baina ez du goserik pasako.

- Mezara joango da.
- Lursail eremu txikiak ustiatuko ditu familiaren biziraupenerako.
- Naturaren inguruko ezagutza sakona izango du.
- Posible ote zen emakume hau desagerrarazi nahi izatea?

OHARRA: XV. mendean, Mungia-Plentzia zonaldean, García de Cortazarrek jaso zuen 24 biztanle besterik ez zirela. Datu hori eta ikertutako gizartearen antolamendua kontutan hartuko ditugu podcasterako protagonisten fikzioa asmatzerakoan.

II Gertaera garrantzitsuak:

1– Mungia herriaren sorrera, XIV. mendea

Herria sortu aurreko garaia, irakurri dugunaren arabera, latza izan zen, beltza; izan ere, familia boteretsuen arteko tirabirek, bandoen arteko lehiek eta gosete zein izurriteek bizirauteko baldintzak zaildu zituzten.

1376. urtean Bizkaiko jaun Juanek bere menpekoei babesa emateko asmoz, Mungia sortzeko eta bertan bizitzeko abantaila ondu zuen:

para que sus vasallos pudiesen y poblar et morar, et ser guardados, et defendidos, et amparados a mi servivio, et a pro de ellos”

Herria sortzeko arrazoiak:

- Zergarik ez ordaintzea: Gaztelatik bidesariak ezarriko dira, zonaldeko merkantzien garraioarekin aberasteko. Eremuko biztanleria herrira eramateko apeua izango da epe batez zergak ordaintzetik libre egotea.
- Etxe bat izateko aukera ona: herrian bizi nahi dutenek etxebizitza baldintza onetan erosiko diete jabe berriei: *precios convenientes segun lo tasaren sore jura se Santos Evangelios, los homes buenos...*
- Bi: merkatu-eguna. Herriko *Concejoak* aukera izango du merkatu-eguna ezartzeko. Botere-lagapen bat da hori. Noble edo jauntxo bat barik, zenbait herritarren artean sortutako talde horrek, hain zuzen ere *Concejoak*, ahalmen politiko hori eskuratuko baitu.

2– Eliza herriaren mugen barnean

Nahiz eta Mungialdean eliza eta ermitak egongo diren, herri barruan eliza egonkorra ezarriko da. Gonzalo Gómez de Villelak³ eremu horretan zuen *Monasterioa* herriari lagatzen dio, Bizkaiko jaunak hala eskatuta; eta, horrekin batera, baita horren kontura irabazitako mozkin guztiak ere.

Bestalde, elizaren bidez, pertsonen bizitza espirituala sustatuko da. Beraz, herritarra ez da bakarrik herriaren harresiaren barnean kanpoko biolentziaz aske sentituko; horrez gain, haren plano psikologiko eta emozionalean aterpetuta ere sentituko da. Bizkaiko jaunak egindako

³ Nahiz eta Gómez de Villelak Villela abizena izan, Butroiko familiakoa zen.

hautu horrekin, alde batetik, nekazariei aterpe emango die, baina mozkin berriak ere lotuko ditu: *acrescentamiento de los mis pechos, et derechos et por otras razones...* Osotara, biztanleri berriak 5500 *marabedi* ordaindu beharko dizkio.

3– Bi familia boteretsuen eremu hartzea

Zirt edo zart egiteko momentu horretan, elkarren arerio ziren bi familia nagusiek, Villela eta Butroi familiak, marra geografiko bat eraikiko dute euren artean: harresiaren barnean geratuko den Villela familia eta harresitik kanpo egongo den Butroi familia. Biek ala biek eremu bakoitzak ematen dituen botere-ahalmenak ustiatuko dituzte, merkatua Villelaren kasuan, basoaren ustiapena Butroien kasuan.

Merkatua heltzearekin batera, aldaketa esanguratsu bat gertatzen da familiaren baitan. Eta aldaketa horrek eragin zuzena izango du egungo “emakume familiarra” gisa ulertzen dugun rolaarekin.

Aberastasun-iturria komertzioan baino basoaren ustiaketan oinarrituta zegoenean, familiaren etxea familiarena zen. Badakigu oso ideia xaloa dela esandako hori. Hots, etxeak familia osoa hartzen zuen, eta, horregatik, familiako kide guztiena zen eraikina: lau, bost, sei pertsonena, alegia. Halere, ideia sinple eta logiko hori guztiz aldatuko da kapitalismoaren sorrerarekin eta hedapenarekin bat.

Merkatuaren garrantziaren igoerarekin batera, familiako etxea merkatuko baliabide bihurtuko da: fabrika txiki bat, bendeja lantzeko eta gordetzeko eremua. Eta hori izango da oinordetza pertsona bakarrarengan uzteko arrazoiatariko bat: fabrikaren martxa ona mantentzeko asmoz, etxearen zatiketa posibleak ekiditea.

Kristautasunak ere gero eta indar handiagoa hartuko du eta ekonomian eragin zuzena izango du. Horren adierazgarri da erlijioak horrela eskatuta etxebizitzaren oinordetza gizonarengan izateko beharra zehaztu izana. Nahiz eta ikusiko den familia askok ez dutela hori beteko.

4– Bendeja eta bendejera

Azaldu bezala, etxea gordelekuaz gain, bestelako esanahi bat hartuko du: merkataritza sustatzeko bihotza bilakatuko da.

Bihotza hitza erabili nahi izan dugu emozioekin bat egiten duelako.

Etxea babeslekua da, are gehiago: etxea familiaren zaintza eta garapena ziurtatzeko tresna da. Familiako emakumeak izango dira erantzukizun horren hartzaileak, haiek atonduko baitute bendeja. Dela baratzeko produktua, dela irina, direla arrautzak, direla gaztainak... Baserri bakoitzak bere bendeja ekoiztuko du. Ondoren, emakumeak, bendejerak, baserrian ekoiztutakoa eramango du merkatura.

Bendejera hitzak esanahi ugari bilduko ditu, izan ere, bendejera eremu askotan mugituko da. Horietako batzuk:

- Etxe barruan: ardura, lana, erantzukizuna.
- Gizartean: garrantzia, konfiantza, lekua.

– Euren artean: adiskidetasuna, fidagarritasuna, jeloskortasuna...

Aurretik azaldutako emakumeen rolei beste bat gehituko diogu:

a) Emakume herritar bendejera

Ustezko ezaugarriak:

- Familia bateko emakumeak izango dira, edade askotarikoak.
- Trukean aritzeko bezainbeste hezkuntza beharko dute.
- Baserriko ondasunak ustiatuko ditu.
- Goseteak eta gaixotasunak lehen lerroko ardurak izango ditu.
- Harresiaren barnean lapurretatik salbu sentituko dira eta bendeja ustiatzeko premia sentituko dute.

Ustezko egunerokoa:

- Jateko nahikoa izango du, baina baserriaren ustiapenaren arabera izango da.
- Mezara joango da.
- Plazara joango da. Beste emakumeekin hitz egingo dute, baita herritik kanpo datozenekin ere.
- Baserriaren ondasunak ustiatuko ditu, bai familiarentzat baita merkatura bendeja eramateko ere.
- Izango du herriko bizimoduaren ezagutza sakona.
- Posible ote zen emakume hau herriko botere politikotik gertu egotea? Horrela izan ez bada, zergatik?

b) Herritik kanpoko emakume bendejera

Ustezko ezaugarriak:

- Familia bateko emakumeak izango dira, edade askotarikoak.
- Trukean aritzeko bezainbeste hezkuntza beharko dute.
- Baserriko eta basoko ondasunak ustiatuko ditu.
- *Millites* edo *collazos* estamentuetatik zein bandoetatik sortutako emakume bendejerak arestian azaldutako ezaugarriak bilduko ditu.
- Harresitik kanpo, emakume boteretsuak izango dira, baliteke euren esanetara langileak izatea, bendeja lapurren arriskutik kanpo egoteko. Batez ere, basoa ustiatzeagatik sortutako bendeja landuko dute: fruta arbolak, opilak.

Ustezko egunerokoa:

- Jateko nahikoa izango du, baina baserriaren ustiapenaren arabera izango da.
- Mezara joango da.
- Plazara joango da. Beste emakumeekin hitz egingo du, baita herritik kanpo datozenekin ere.
- Baserriaren ondasunak ustiatuko ditu, bai familiarentzat baita merkatura bendeja eramateko ere.
- Izango du herritik kanpoko bizimoduaren ezagutza sakona.

2– Bendejera karlista: industrializazioa eta I. Karlistaldia

Testuingurua:

Nekazaritzan oinarritua zegoen sistema ekonomikoaren gainbehera XVIII. mendearen azken bi hamarraldietan hasi zen. Aristokraziaren boterea gutxitzen zihoan heinean, burgesia izeneko talde berri baten lehen arrastoak antzeman zitezkeen. Frantziako Iraultzak eragin sakona izan zuen Hego Euskal Herrian: tradizioaren (foru-erregimena) eta sistema liberal modernoaren arteko konfrontazioarekin batera, gudaren zantzua igarri zitekeen.

Bizkaian, bertako lurrak arautzen zituzten foruak arriskuan jartzen zituen monarkia ilustratuak zentralismorako joera areagotzen zihoan heinean, eta Frantziako Iraultza, Konbentzioaren Gerra, 1812ko Cadizko Konstituzioa eta Iberiar Penintsulako Gerrak zirela medio, Euskal Herri osoko egitura sozialak, politikoak eta ekonomiak kolpe latza jasan behar izan zuten.

Ondorengotza Gerrak, Karlos V.aren eta Isabel II.aren (bere ama Maria Kristina Borboikoa zen) erregetzaren inguruko desadostasunek hasiera eman zioten gudari, Fernando VII.aren heriotzaren ostean. Maria Kristina liberalen lagun egin zen, ondorengotzan haien babesa bilatu nahian. Tradizionalek eta erregimen zaharraren aldekoek Karlos V.aren erregegaiaren alde egin zuten. Euskal Herriko herritar gehienak azken alderdi horretan kokatu ziren.

Lehenengo Karlistaldia hartu dugu gertaera interesgarri moduan; izan ere, erregimen zaharraren gainbeheraren hasiera izan zen.

DATA	GERTAKIZUNA
1833ko urriaren 1ean	Fernando VII.aren heriotzaren berri izan zutenean, lehenengo matxinadarekin hasi ziren aldarrikapenak.
----	Gerra hasieran, Bilboren kasuan, Karlistak erraz gailendu ziren.
1833ko azaroaren 14an	Zumalakarregik Nafarroako komandante nagusiaren izendapena jaso zuen.
1833ko abenduaren 25ean	Sarsfield komandante jeneral liberalak Bilbo bereganatu zuen.
1833ko abendutik aurrera	Entrenatutako baserritar karlisten lerroak gordindu egin ziren eta agintari liberalekiko aurkakotasuna areagotu egin zen.
1834ko maiatzaren 20an	Bizkaiko aldundi, batzorde zein udal batek ere ez zuen 1834ko Errege Estatutua onartu.

	Baina zenbait protesta direla medio, isun gogorrak jasan behar izan zituzten, eta agintariek Estatutua sinatu eta prokuradoreak bidali behar izan zituzten Gorteetara.
1835eko ekainaren 2tik aurrera	Hainbat konfrontazioen ostean Bizkaia ia osoa (hiriburua izan ezik) Karliten eskuetan gelditu zen.
1835eko ekainaren 10ean	Zumalakarregi Bilbo osoa bereganatzen hasi zen eta hilaren 13rako hiriburuaren setioari hasiera eman zion.
1835eko ekainaren 24an	Zumalakarregi Zegaman hil zen hilaren 15ean hankan zauritua izan ostean. Erasok hartu zuen agintea, baina setioa bukatutzat eman behar izan zuen.
1835eko uztailaren 1etik 1837ko maiatzera arte	Euskal Herriko indarren oreka ezaugarri duen gerra-fasea luzatu zen. Garai honetan, gainera, Bilbo liberalen eskuetan zegoen.
1836ko otsailean	Egia jeneral karlistak Plentzia eta Balmaseda hartu zituen.
1836ko apirilean	Egia jeneralak Lekeitio bereganatu zuen.
1836ko urriaren 24an	Bruno Villarreak Bilboko setioari ekin zion berriz ere. Oraingoa askoz luzeagoa izan zen eta bataila gogorra eduki zuen.
1836ko Gabon-gauan	Lutxanan amaitu zen setioa, Espartero ospez betez.
1837tik aurrera	Karlismoak bere sinesgarritasun zati handi bat galdu zuen bere europar adiskideen aurrean.
1838ko udatik aurrera	Desadostasun eta gatazka handiak egon ziren Marotoren eta muturreko apostoliken (ultratradizionalisten) artean.
1839ko otsailetik aurrera	Estatu-kolpe bat eman zuen Marotok Karlismoaren barruan. Garai honetan,

	foruen gaiak leku garrantzitsua hartu zuen gerran.
1839ko abuztuaren 31n	Carlos V.a, liberalek ezarritako proposamenen jakitun, Bergarako besarkada (hitzarmena) heldu zen. Maila militar karlistak onartu ziren eta “foruak emateari edo aldatzeari” buruzko promesa anbiguoak egin ziren, bizkaitarren sentimendu foralisten interesak irudikatzen saiatuz.
...	Hainbat soldadu eta buru, haien artean Carlos V.a, Frantziara erbesteratu ziren. Karlismoak zutik zirauen.

Aurreko horrek zenbait galdera dakarzkigu burura:

- Tradizioaren eta mendeetan zehar ezagututako estatutu juridikoen (foruen) baitan, posible izango litzateke bendeja-saltzaile liberalaren irudia?
- Zer nolako partaidetza izan zuten emakumeek gatazka beliko hauetan? Zein zen emakume bendejeraren rola?

XIX. mendean emakumeek ez zuten erabakiak hartzeko botererik; gizonen mende bizi ziren. Gatazka belikoak feminitatearen antitesi gisa ikusten zituzten, eta beraientzat ez zegoen lekurik horietan. Dena dela, betidanik gertatu izan den moduan, borrokalarien senideak edo emazteak izanik, gehienetan **biktima** bihurtzen ziren. Kasu horietan, senideen ekintzen aurka mendekua hartzeko, tratatu txarrak eman, atxilotu, bortxatu edo hil egiten zituzten, eta askotan, alargun gelditzean ere, pobrezian bizi behar ziren. Hala ere, emakumea ez zen beti kaltetua izaten, **batzuetan aktiboki parte hartzen baitzuen gatazketan**, nahiz eta ohikoena zaurituei laguntzen aritzea, janaria eskaintzea eta munizioa ematen ibiltzea izan. Beste irudi bat emakume espioiarena zen.

Gutxi eta entzutetsuak ez, baina egon bazeuden gatazkan **aktiboki partaide** izandako emakumeak ere. Adibide garbi bat 1835eko ekainean Bilbon gertaturikoa da: emakume asko karlisten aurrean hiria defendatzen aritu ziren, Isabel II.ari eta askatasunari gorazarre eginez⁴.

Halako beste bat Ana María Galindorena da. Allozazeko (Teruel) **karlista** sutsua izan zen. 1835eko urtarrilaren 27an Ramón Cabrera eta Francisco García komandanteekin elkartu eta herritik alde egin zuen Euskal Herrirako bidean, Carlos V.arekin biltzeko. Ziurrenik, oharkabean errazago pasatzeko joango zen haiekin —xaboia saltzen zuten mandazain-talde bat zirela uste zuten—. Edozelan ere, erregegaiak ez zion harrera egin Zuñigara (Gipuzkoa) iritsi

⁴ Antonio PIRALA CRIADO, *Historia de la guerra...* 2. liburukia, 18. eta 19. or.

zirenean; bai, ordea, beste biei⁵. Geroago, Aragoitik eta Zaragozatik ere ibilitakoa izan zen, goian aipatutako militarrekin batera. 1843ko abenduaren 21ean hil zen Caspen, erabateko pobrezian⁶.

Azpimarratzekoa da, gainera, bazeudela tiroka ibili gabe ahalegin belikoetan parte hartu zuten emakume batzuk ere. Esaterako, Kantabriako erasoaldi batean, 1834ko maiatzean, karlista euskaldunek haien laguntza izan zuten unea; haiek arduratu ziren lapurtutako guztia Bizkaira eramateaz⁷. Euskal Herrian, **andre karlistek** zaurituak —edozein aldetakoak— hartu eta baserririk hurbilenera laguntzen zituzten sendatzeko. Era berean, **liberalek** Donostia defendatzen zuten ingelesak artatzen ziharduten; jende askori bizia salbatu zieten.

Helburu berarekin, hiri-konpainia bat sortu zen 1835eko urtarrilean Lekeition, “*Antiguas Cántabras*” deiturikoa. Antonio Pirala historialariaren hitzetan: “*venerables matronas, esposas amantes y doncellas hermosas y entusiastas forman esta nueva milicia, cuyo principal instituto será el de proporcionar a los bravos defensores de nuestra angelical reina que yacen postrados del dolor...los cuidados que reclaman*”. Haien beste eginkizunetako bat munizioa eramatea zen⁸.

Halaber, gatazkan borrokatu ziren **emakume liberal** batzuk argitara ekarri nahian, Plentziak emakume milizianoen konpainia bat zuen. Bandera propioarekin, armekin eta danborrekin antolatua zegoen. Fusila eta soin-uhala zeramatzaten. Alabaina, 1836ko otsailean karlistek herria hartzean, harrapatu egin zituzten⁹.

Antonio Caridadek **zenbait ondorio** azaleratu zituen bere lanean. Haren arabera, arrazoi sendoak daude armak eskuan zituzten emakume gerlari guztiak —edo ezagutzen ditugunak, gutxienez— alderdi liberalekoak izateko. Karlismoa ideologia tradizionalagoa zen eta begi txarragoz ikusten zen emakume bat “maskulinitzat” jotzen ziren lanetan aritzea. Hori dela eta, Caridaderen ustetan, emakume tradizionalistak egon baziren ere, modu apalago edo diskretuagoan parte hartu zuten. Garrantzitsua dela aipatzen du nola emakumeen mobilizazio militarra bat-batekoa izaten zenez, herri erasotu edo setiaturen bat defendatu behar zenean gertatzen zela. Herrien aurkako eraso gehienak karlistek egiten zituzten, beraz, logikoa dela dio emakume borrokalariak bakarrik alderdi liberalean egotea. Bere aburuz, gainera, matxinoek egiten zuten gerra motak (erasotzailea eta askotan gerrillen gerra zena) askoz gehiago zailtzen zuen emakumeen parte hartzea. Ez da ahaztu behar, bestalde, borrokan parte hartutako emakumeek ez zutela bakarrik etsaiak hiltzen laguntzen; haien senarrak askatzen edo salbatzen saiatu zirenek ere aipamen berezia merezi dute.

- Guzti honekin suposa dezakegu Mungiako bendeja-saltzaileen artean iritzi anitzeko emakumeak egin zitezkeela? Bai karlisten aldekoak zein liberalen aldekoak ere?

⁵ Buenaventura de CÓRDOBA, *Vida militar...* 1. liburukia, 107. or.

⁶ Rafael GONZÁLEZ DE LA CRUZ, *El vengador y la sombra de Cabrera...* 71. eta 72. or.

⁷ Vicente FERNÁNDEZ BENÍTEZ, *Carlismo y rebeldía campesina. Un estudio sobre la conflictividad social en Cantabria durante la crisis del Antiguo Régimen*, Madrid, siglo XXI, 1988, 29. or.

⁸ Antonio PIRALA CRIADO, *Historia de la guerra...* 1. liburukia, 385. or eta 2. liburukia, 485. or.

⁹ Antonio PIRALA CRIADO, *Historia de la guerra...* 2. liburukia, 453. or.

Mungian emakume ilustratuak egongo ziren, liberalen aldekoak Bilbon, Donostian, edo Plentzian egon ziren moduan. Hala ere, nekazal munduko emakume ugari zeuden, eta, ohituren eta foruen defentsan, karlisten alderdikoak ziren gehienak. Juan Mañé y Flaquer kataluniarrak 1879an Mungia bisitatu eta zera esan zuen: “Mungiak 2.000 biztanle inguru ditu, ia denak nekazariak, Oka ibai emaritsuaren ertzean dauden burdinola ugariak desagertu baitira. Bertako nekazariak gari, arto, gaztaina, sagar eta barazki oso gozoak ekoizten dituen landazabal ederra dute, baina gaur egun Mungiari ospea ematen diona behi-aziendaren garagarra da (...). Ilunabarrean, emakume herritarrek Bilboko azokatik alai eta presaka itzultzen dira, salmenta on baten poza eta berriro ere beretarren artean egoteko gogoa etxera daramanak bezala”.

Ustezko ezaugarriak:

- Karlisdietako Mungiako bendeja-saltzaileak baserria ustiatzen zuten emakumeak ziren. Tradizioz, belaunaldiz belaunaldi baserria gobernatzen ikasitako nekazariak. Neskak, 12-14 urterekin plazara joaten hasten ziren amarekin edo bestelako inguruko emakume ezagun batekin, ortuariak, otzarak, esnea eta abar saltzeko. 14-15 urte betetzean zituztenean bakarrik joaten ziren.
- Industrializazioaren ostean, lantegietan lan egiten zuten bendejera askok; behin ezkonduak zeudela, lana utzi beharrean, bertan lanean jarraitzen zuten, plazako lanarekin uztartzen zuten bitartean.

Ustezko egunerokoa:

- Bendeja-saltzaileek zeregin handia izaten zuten (eta oraindik ere badute). Plazara joan baino lehenago jeneroa ortutik batu, plazara eramango dutena aukeratu, uzta hori garbitu eta mordoak egin behar izaten zituzten. Eguneroko lana izaten zen.
- XIX. mende amaierara arte, bai bendejerak zein esne- edo otzara-saltzaileak oinez joaten ziren plazara. Goizetik esnatu, zumezko otzaretan dena sartu eta astoaren eta, batzuetan, gurdien laguntzaz plazarako bideari ekiten zioten. Mende amaieran inauguratu zen ikatzez zihoan Mungiako tren-linea.
- Plazara goizetik heldu behar izaten zen leku ona hartzeko.
- Plazara sasoian sasoikoa eramaten zuten. Neguan: kalabazak, zerbak, azak, porruak, berakatzak, tipulak, intxaurrak, hurritzak, arrautzak eta abar. Udan: aurrekoaz aparte, tomateak, piperrak, lekak, letxugak, kalabazinak, loreak eta abar. Frutak ere asko saltzen ziren. Bertako jeneroa estimatua izaten zen: sagarrak (klase ugaritakoak; adibidez sanjuan-sagarra, kana-sagarra, sanpedro-sagarra...), madariak, melokotoiak, okaranak, mailukiak eta abar. Bakoitza bere sasoian¹⁰.
- Arestian esan bezala, guda garaian emakume karlistek, zauritua edozein izanik ere (karlisten aldekoa zein liberalen aldekoa), inguruko baserrietara eramaten zituzten sendatzeko. Posible litzateke, beraz, Mungiako plazako bendejeraren batek noizbait halako ekimenen bat bere gain hartu izana.

¹⁰ Labayru Fundazioa (2021) *Bendejerak. Sorotik plazara...* 31. or.

Kontuan hartu behar dugu, XIX. mendeko lehen herenean Euskal Herria landatarra zela nagusiki. **Bizkaiko gizarte tradizionala hiru zonalde desberdinetan banandu zitekeen:** lehenik, hiriburua, Bilbo; portuko jardueretan, salerosketetan eta eskulangintzetan aritzen zena. Bigarrenik, Bizkaiko gainerako hiriburuetan, tradizionalagoak eta apalagoak ziren, beraz, zeregin nagusia eskulangintza eta gertukoei zerbitzuak ematean zetzan; Mungiako uria kasu, argi eta garbi. Eta azkenik, landa-eremuetan, baserriko jardueretan aritzen ziren. Hala nola, garrantzitsuak izan ziren hurrengo jarduerak: ikatza lortzeko mendiaren ustiapena, burdina lortzeko burdinolen garapena, kostaldean, arrantzaren garapena, batetik bestera garraiatzeko elikagaiak eta materialak gurdi-lanak; eta, barazki eta ortuariak saltzeko baserria beraren ustiapena. Kasu honetan, bendejen egunerokotasunean barneratuko ginateke. Plaza-egunetan (larunbatetan; beranduago, errekarariak ostiraletara pasatzeko eskatu zuten) Mungiako urira bertaratu eta Foruen enparantzan astero jeneroa eta otzarak saltzen ibiltzen ziren emakumeak. Hamabostero, gainera, ganaduen feria ere egoten zen¹¹.

Gertaera garrantzitsuak:

- Lehen Karlistaldian Bizkaiko landa-eremua Karlista zen orokorrean. (Bilbo, hasieran izan ezik, liberalek izan zuten kontrolpean luzaroan).
- 1840an, euskal probintziak gainerako monarkiatik bereizten zituzten merkataritza-aduanak kostaldera lekualdatu ziren, eta, horrela, aro berri bati ekin zitzaion euskal industria-jardueraren historian.
- Gerra karlisten amaieratik aurrera, Bizkaiko industrializazioa berehala bizkortu zen, Bessemer prozedura orokortu ondoren Somorrostroko burdin ez-fosforosoaren britainiar eskariaren hasierako bultzadapean. Bertan, siderurgia modernoaren hedapenarekin jarraitu zuen prozesu bat hasi zen, batez ere 1880-1882tik aurrera; metalurgia-sektorea garatu zen eta 1891ko muga-zergaren ondoren; Bilboko itsas-merkataritza nabarmen hasi zen, beste prozesuen artean.
- Gizon nekazariak lantegietan hasi ziren lanean. Eskulana falta zenez, immigrazioak gora egin zuen eta Euskal Herritik kanpoko familiak zein bertako eremu ugaritako familiak industria-zonaldeetara joan ziren.
- Emakume nekazaria, nekazari izatetik gizon nekazariaren emaztea izatera igaro zen XIX. mendeko bigarren erdialdetik aurrera. Pentsamolde aldaketa bat jasan zuen gizarteak.
- Emakume karlista askok soldadu zaurituak (karlistak zein liberalak) inguruetako baserrietara eramaten zituzten eta artatu egiten zituzten.
- Gatazkan parte hartutako emakumeak egon ziren, bai karlistak baita kristinatarrak ere.

¹¹ Pareja Alonso, A.; Zarraga Sangroniz, K. (2006ko apirila) *Bizkaiko emakumeen lanbideak eta zereginak. Atzoko eta gaurko irudiak*.

Emakumearen rola lan-munduan:

XIX. mendearen erdira arte, gutxi gorabehera, landa-eremuan zein hiri eremuan, ekoizpenaren eta berrekoizpen sozio-ekonomikoaren ardura familiako kide guztiek zeukaten. Zereginak eta jarduerak sexuaren eta adinaren arabera banatzen ziren, baina guztiek egiten zuten lan baserrian, eta halaxe ulertzen zen. Familiaren kohesioa handia izaten zen orokorrean, eta familiaren multzoaren garrantzia hain zen pisuzkoa, ezen iturri estatistikoek pentsamolde horixe bera islatzen baitzuten.

1825eko Bizkaiko jarduera-tasa sexuaren arabera banatzen dituen taula batean, bai landa eremuan zein bestelako hiriburuetan, eta baita Bilbon ere, **gizonen eta emakumeen arteko banaketa nahiko parekatua** dela ikus daiteke; batez ere baserri munduan (kasu honetan Zeanurin). Esan daiteke, beraz, diferentzia norbanakoa barik **talde ikuspegia** duen gizarte eta estatistikagintzarako pentsamoldean datzala. Baina gizarte tradizionala desegin egin zen, eta **industrializazioak lanaren izaeran eta esanahian aldaketa sakonak eragin** zituen. Emakumeak izan ziren haien ekoizpen-jarduera ezkutuan gelditzea pairatu behar izan zutenak. Hortaz, XIX. mendearen erdialdetik aurrera, gizon nekazariaren emaztea ez da gehiago nekazaria izango eta “etxea gobernatzen” arituko da, nahiz eta bere jarduera aldatu ez duen. Emakume hori **ez-aktibotzat joko dute**, eta aurrerantzean, urteak aurrera joan ahala, emakumeek nekazaritzaren esparruan duten partaidetza ezkutatzeko joera egongo da. Beraz, genero-eredu sozial berri bat eratuko da. Familiak ez dira jada ekoizpen unitate bat; hemendik aurrera **ugalketara eta kontsumora bideratua egongo dira**¹².

Hala ere, interesgarria da aipatzea Pilar Pérez-Fuentes Hernandezek bere “*Ganadores de Pan y Amas de Casa. Otra mirada sobre la industrialización vasca*” liburuan idatzitakoa: “bizitza ekonomiko, sozial eta politikoaren indibidualizazioak pater familien boterea eta, ondorioz, Antzinako Erregimenari eta nekazaritzaren eta industriaren ekonomiei lotutako familia-eredua pixkanaka lausotu zuen. Familia ekoizpen- eta/edo lan-unitate gisa desagertzean, industriaurreko gizarteetan familia-ordena eraikitzeke oinarria ere desagertu egin zen: aitak familiako gainerako kideen lanaren gainean zuen kontrola.”

Baina gizonen paperean, etxea mantentzeko asmoz fabrikari dirua irabaztearen ardura horretan, emakumeen lana bigarren plano batean gelditu zen. Gizarte industrializatu berri horretan **emakumeek ez zuten beren lekua hartzeko ia aukerarik**; aukera horiek oso mugatuak eta okerragoak ziren. Horren ondorioz, emakume burgesaren ideala etxeko emakumea zen. “Txukuna”, “garbia” eta fabriketatik urrun. Emakumearen eginkizun sozial berria “etxeko aingerua”, “ama arduratsua” eta “emazte atsegina” izatea zen; “etxerako modukoa”¹³. Hala, **espazio publikoak gizonentzat ziren eta espazio pribatuak emakumeentzat**.

Errealitatea, ordea, zera zen: familiarik behartsuenetan, emakumeek, etxeko lanarekin lotutako lanez aparte, fabriketan aritzen ziren soldata osagarri bat etxera eramateko. Landa-

¹² Pareja Alonso, A.; Zarraga Sangroniz, K. (2006ko apirila) *Bizkaiko emakumeen lanbideak eta zereginak. Atzoko eta gaurko irudiak*.

¹³ Pareja Alonso, A.; Zarraga Sangroniz, K. (2006ko apirila) *Bizkaiko emakumeen lanbideak eta zereginak. Atzoko eta gaurko irudiak*.

eremuen kasuan, emakume baserritarrak plazako bendejerak izaten ziren askotan, baserriko ekoizpenarekin etxeko ekonomiarako osagarria eramaten baitzuten. Lan hori, ordea, ezkutuan geratu zen estatistiketarako, batez ere emakume ezkonduen kasuan: ez-aktiboen atalean sartu ziren. Esan bezala, egoera berri horren aurrean, **familia-unitateen funtzio ekonomiko eta soziala guztiz aldatu zen**. Ekonomikoki mendekoak izateak hautsi egin zuen bizikideen arteko interdependentzia-tradizioa, nekazaritza-sozietateetan ezarrita zegoena, hain zuzen.

Emakumeen soldatak desberdinak zirenez, eta lan-baldintzak, okerrak, **diskurtso burgesa barneratu zuen ezkerreko ideologiak**. Emakumeak etxekoak zirela eta etxearen ardura zutenaren ideiarekin bat egiten joan ziren mendea aurrera zihoan heinean. Beraz, emakume baserritarraren, bendejeraren espazio publikoa plaza bilakatu zen. Ezkondu bezain pronto emakumeak espazio pribatuan aritzera bideratuta zeuden. Espazio pribatu hori etxea/familia/ezkontza zen, azken hori baitzen **lan-baldintza berri eta okerren aurrean emakumeek zuten aukerarik onena**.

G. Gomezek zioen biztanleen **egoera zibila herrien egoera moralaren eta ongizatearen termometroa** zela; izan ere, ezkontza langintzaren bermea zen eta eragin moralizatzaile nabarmena zuen biztanlerian. Pribatasunaren balioa etxeko eremuak (emakumezkoena) tenkatutako merkataritza-mundutik (gizonezkoena) bereizitako zerbait zenaren garrantzia hazi egin zen, klase ertainetatik haratago. Horrela, arau-esparru eta esparru sinboliko berri bat eraiki zen, eta, horren bidez, identitate femenino eta maskulino berri bat sortu zen. Identitate horrek industriaurreko gizarteekiko alde nabarmengarriak zituen. Helburua ez zen soilik sexuen arteko hierarkia jakin bat bermatzea, baizik eta, era berean, emakumeek gizarte industrialean egiten duten lanaren “funtzionagarritasun” sozial eta ekonomiko handiagoa lortzea.

3 – Gerra Zibila eta gerraostea

Testuingurua:

1936ko uztailaren 17an hasi zen Gerra Zibila.

Mungia 1937. urteko maiatza eta ekaina bitartean bonbardatu zuten italiarren eta frankisten tropek. Herrian bunker moduko batzuk sortu zituzten, eta bertan aterpetzen ziren herritarrak.

1937ko maiatzaren 14an, Sollube okupatuko dute frankistek. Momentu horretan, mungiar askok herria utziko dute, eta errepublikarrek dinamita jarriko dute herrian, nazionalen aurka egiteko.

Modu batean zein bestean, herria birrinduta geratuko da, eta 260 pertsonak 1938-1939 artean bortxazko lanak egingo dituzte herria berreraikitzeko.

Garai honetatik heltzen zaizkigun datu gehienak soldaduen ingurukoak dira, gizon heroien eta politikoen ingurukoak. Emakumeen inguruan, ordea, gutxi dakigu. Hala ere, testigantzak topatu ditugu zaintza eta janaria —biak ala biak bizirauteko ezinbestekoak— emakumeen esku zeudela diotenak.

Emakumeek hiru arlotan izango dute esku-hartze erabatekoa: familien hezkuntzan, sostenguan eta zaintzan.

Bendejerak, beraz, orduko gizartean rol esanguratsua jokatu du. Izan ere, etxearen sostenguaren kargu hartzeak bestelako lan bat suposatu die bertako bendejerei eta emakumeei. Badakigu Bilbotik eta ingurutik Mungiako baserri batzuetara heltzen zirela emakumeak ilegalki indabak eta bestelako elikagaiak saldu eta lortzeko. Hortaz, merkatuan agertzen ez zen beste bendeja salerosketa bat egin behar izan zuten, guztiz ilegala. Emakumeek emakumeei saltzen zieten, eta bai erosleak bai saltzaileak arrisku handia hartzen zuten harreman hori mantentzeagatik.

Bestalde, zaintza dela eta, emakumeek urteetan jasotako osasun ezaguera ezinbestekoa bilakatu zen gaixoei eta zaurituei laguntzeko. Hala nola belarrak (eukaliptoak, batez ere), ozpinak eta holakoak saldu zituzten, askotan, kontrabando bezala.

Mungiako bendejerak, askotan, Bilbora joan behar izan ziren bendeja saltzeko, izan ere, egunez egun, batez ere, Gerra Zibilaren aurretik, herria ez zen segurua edo ez zegoen nor heldu bendeja erosteko. Bestela ere, larunbatetan zen merkatua, eta bertara eramaten zuten baserrian ekoizitakoa, baita etxean ez zutena erosi ere. Arrautzak ziren hobeto saltzen zena, horregatik, bendejera askok, ez zituzten euren arrautzak jaten, nahiz eta familiari bai jaten eman. Eurena larunbatetarako gordetzen zuten, hura saldu eta bestelako elikagaiak edota lana bermatuko zioten erremintak lortzeko (jostorratzak, esaterako).

Emakumearen rola:

Emakume errepublikarra:

Errepublikaren alde egitearekin batera, gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna bermatuko zuen gizarte batekin amestu zuten emakume askok. Gerra Zibilak berak estatus berria eman zien emakume errepublikarrei; izan ere, hasi eta berehala *andrezko milizianaren* figura sortu zen, alegia, gizonekin batera faxismoaren kontra egin zuen emakumearena. Halere, ez zen benetako berdintasunik lortu, bereizketa nabarmena zen lan kontuetan. Esaterako, emakumeak fronteetan sukaldariak, postariak edo garbitzaileak izaten ziren, bakan batek gizonekin batera borrokatu zen, baina salbuespena zen hori.

Ondorioz, emakumearen irudi berria sortu zen, *giza laguntzailearena*. Rol berri honek emakume asko batu zituen helburu iraultzaileen alde egiteko eta faxismoaren aurka borrokatzeko. Lanpostu berriak heldu ziren, munizioak egiteko fabriketan lanpostua, zerbitzu sozialetan, hezkuntza-kanpainetan, proiektu kulturaletan eta abarretan.

Bide berri horri esker, gizartean ordura arte ezin lortutako guneak hartu zituen emakumeak, hain zuzen ere kargu garrantzitsuak erakundeetan, nahiz eta, betiere, erakunde horiek gizarte-laguntzarekin harreman zuzena izan.

Emakume nazionalista:

Atzerapausoa izan zen aurreko gizartean lortu nahi zen berdintasun sozialari begira. Gizarte patriarkala indartu eta gizonaren mendetasuna erabatekoa izan zen. Emakumea etxean baztertuta geratu zen eta emakume onaren ezaugarriak ezarri ziren: etxea eta familiaren zaintza lehenetsi behar zituen, baita laguntzaile lanak egin ere.

Emakume nazionalistak ere izan zuen gizartean taldeka batzeko aukera, Primo de Riverak erakundeak sortu zituen, emakume nazionalista gizarte-kolektibo moduan agertzeko. Pilar Primo de Rivera izan zen kolektibo horren zuzendaria. Gerra garaian lan batzuk egin zituzten, hala nola erizain-taldeak sortu, umezurtzak laguntzeko sailak antolatu, fronteetan garbiketa-lanak egin, tailerrak antolatu...

Emakumearen rola, azken batean

Errepublikarrek eta nazionalistek politikoki eta sozialki helburu zehatzak izan arren, eta xede horien arabera gizartearen antolamendu berezia lortu arren, ikusi da askatasunaren edo faxismoaren izenean lan egindako emakumeek rol parekoa lortu zutela gerra zibilean: laguntzailearena eta zaintzarena.

Bendejera, zer, non eta nola:

Gerrak bi bandotan banatu zuen gizartea, eta, beste behin ere, horrek indarkeriaren sama handitu zuen emakumearen aurka. Gerra galdu zuten emakumeen kontrako bortxaketak arautuak izan ziren. Galtzaileari ezarritako zigorra zen, babestutakoa eta egin beharrekoa. Bendejerak bortxatu zituzten, preso hartu eta, zenbaitetan, erail. Baina plazara larunbatero joaten zirenen egunerokoa da hona ekarri duguna.

Emakume bendejera Gerra Zibilean emakume indartsua izan zen halabeharrez.
Askotariko indarkeria jaso zuen:

Alde batetik, garai latzak izateagatik, askotan, etxea utzi behar izan zuten, gerratik ihesi, eta zerotik hasi leku berri batean. Edota baserrian jasotzen zituzten umilazioak, lapurretak eta gosearen ondorioak.

Bestalde, familiaren barruan gizonaren ahultasunagatik indarkeria ere jasotzen zuten: izan ere, gizon askok euren lanpostua galdu zuten eta gizartean ezarrita zegoen rol banaketa dogmatikoak ez-gaitzat jotzen zituen. Dirurik ekartzen ez zuen gizona ez zen gizon deitzeko adina pertsona. Eta, horregatik, emakumea zenean familia sostengatzeko lanak egiten zituen, are ahulago eta minduago ikusi ziren gizon asko. Min hori emakumearen kontrako indarkeriaren bidez erakutsi zuten.

Azkenez, bendejera izateaz gaindi, estraperloan ibili ziren emakume asko. Arrisku handiak hartu zituzten elikagaiak alde batetik bestera eramateko edo legez kanpoko salerosketak egiteko.

Testigantzak (*Ahotsik gabeko istorioak*, Sebastián Piedrabuena Fernández):

1– Bendejera gerran:

Pilar Unibaso Arostegi (Mungian jaioa, 1917. urtean, 19 urte zituen Gerra Zibila hasi zenean) “Ahizpa eta biok Bilboko Erriberako Merkatura joaten ginen bendeja saltzera, trenez. Goizeko bostetan hartzen genuen trena (...). Mungian emakumeek lurrez beteriko zakuak hartzen zituzten eta estoldetan ipintzen zituzten, hegazkinak entzuten zituztenean korrika joaten ziren atzean babestera”.

2–Bendeja saltzeaz gaindi (gerraostean):

Mercedes Egiluz Ugalde (Mungian jaioa, 1924. urtean, 12 urte zituen Gerra Zibila hasi zenean) “(...) gobernu frankistak Mungiako medikuaren emaztea, Angelita Etxebarria, preso hartu zuen Bilboko emakumeen kartzelean, Orue Chaletan, baita beste emakume mungiar asko ere, Geno Iturregi, Mattalen Ateca eta Casimira, esaterako. Carimirari ilea zerora moztu eta errizino-olioa bota zioten. Ni joaten nintzen kartzelara eta, nahiz eta debekatuta egon, eskutitzak ematen nizkien, arropa garbiekin eta janariarekin batera, behintzat gertukoen berri izan zezaten”.

3– Bendejera ihesi:

Gloria Lopategi Geruzaga (Larraurin jaioa, 1929. urtean, 7 urte zituen Gerra Zibila hasi zenean) “Idiak hartu, karrua eta beldurra eta Getxora ihes egin genuen (...). Ikasteari utzi behar izan nion, behiak zaindu, baratzean lan egin eta indabak prestatzeko”.

4– Indarkeria motak:

Rita Bilbao Arruza (Markadian jaioa, 1929. urtean, 7 urte zituen Gerra Zibila hasi zenean) “Konfesatokira joaten ginen, eta apaizak esaten zuen umeak ekarri behar genituela, bestela bekatu mortalean geunden. Guztiok egiten genuen apaizak esandakoa”.

5– Bendejeraren alaba:

Agustina Ganboa Bidarte amaren inguruan hitz egiten (Gamiz-Fikan jaio zen, 1931. urtean, 5 urte zituen gerra hasi zenean)

“Nire ama Mungiako plazara joaten zen, goizeko zazpitan, saskia buruan jarrita, larunbatetan, diru apur bat etxera ekartzeko. Esnea ere saltzen genuen. Amak arroz-esnea urarekin egiten zuen esnea ez gastatzeko. Arropa etxean ehuntzen zuen, telak erosi eta gizonentzako galtzontziloak egiten genituen. Josten ikasi nuen eta familiako arropa guztiak egin nituen”.

Testuingurua:

XXI. mendean gaude; urte gutxitan gure erosketa-ohiturak goitik behera aldatu dira. Gaur egungo teknologiak orain dela hamarkada batzuk espero ez genuena egitea ahalbidetu digu, eta, hortaz, mundua ulertzeko eta elkarren artean erlazionatzeko praktikak guztiz eraldatzen joan dira.

Herrietako saltoki txikietan ere aldakuntza horren pisua nabaritu izan dute urteetan. 1916an Clarence Saunders estatubatuarrek supermerkatua sortu zuen. Beranduago, 40ko hamarkadaren amaieran mundu osotik zabaltzen hasi ziren, 50eko hamarkadaren amaieran Espainiar estatuan lehenengo supermerkatua sortu zuten arte.

Prozesu horrek, aztertuko ditugun beste hainbat kontzepturekin batera, benedja-saltzaileen jardunean eta parte-hartzean zuzeneko eragina izan du. Beraz, XXI. mende honetako egoera islatzea izango da atal honetan gure helburua.

Arestian ikusi dugun bezala, baserriko ekoizpenaren ardura zuzena emakumeak zuen; bera arduratzen zen benedjaren salmentaz. Gaur egun, nahiz eta gizonen partaidetza ere badugun, emakumeek jarraitzen dute Mungiako plazako protagonistak izaten. Baina nolako eraldaketak jasan behar izan dituzte mende aldaketa honetan?

Badakigu baserriko jarduerak ez direla gehiegi aldatu, antzeko dedikazioa behar dute gaur egun ere, baina denborak aurrera egin ahala, jarduera batzuk alde batera utzi dira: adibiderik garbiena esnearen salmenta da. Esnea transformazio industrialaren barruan sartu zen. Hortaz, gaur egun mantentzen den ohiko jarduera ortuarien eta barazkien salmenta da. Hala eta guztiz ere, bestelako produktuen salmenta ere ikus daiteke, besteak beste, eskuz egindako artelanak, fruta mota ezberdinak edo arrautzen komertzioa. Baina jarduera batzuk galdu edo aldaketa sakona jasan duten arren, ohiturek bere horretan jarraitzen dute. Izan ere, “zero kilometroa” filosofiarekin eta pentsamendu aldaketarekin, belaunaldi berriek bertoko produktuei gero eta estimu handiagoa diete.

Aurreko guztiari XX. mendean hasi eta gaur egun jarraitzen duen produktuen garraioa, banaketa eta lan-munduak dakartzan eragozpenak gehitu behar zaizkio, egungo gizartea orriotan eta podcastean ondo irudikatua agertu dadin.

Zergatia/Teoria

Lehenengo puntuan azaldu den moduan, hainbat arrazoik batu gaitu mende honetako egoera azaleratu nahi izatera. Baina arrazoiak argi islatuak agertu daitezten, puntuz puntu joango gara horiexek adierazten.

Kokatu dezagun geure burua. Zelako testuingurutik gatoz, eta zer testuingurutan bizi gara oraindik ere? Industria garaile, janari azkarra, erosketa konpulsiboak, ohitura kutsatzaileak eta

abar. Orain dela mende batzuk plaza zen herritarren merkatua, baina **supermerkatuen sorrerarekin** heldu zen bendeja-saltzaileen “garai iluna”.

Supermerkatuaren asmatzailea Clarence Saunders estatubatuarra da. 1916ko irailaren 16an zabaldu zuen Memphisen (Tennessee) historiako lehen supermerkatua, Piggly Wiggly izeneko.

1915ean bere denda ireki zuen, Saunders-Blackburn Co. 1916an Saunderrek beste urrats bat eman eta bezeroak bere kabuz zerbitzatuko ziren denda bat sortu zuen; saltzaileak irteeran kobratu besterik ez zuen egin behar. *Self-service*aren ideiak Ameriketako salmenta-mota goitik behera aldatu zuen.

Espainiar estatuaren kasuan, 1957an Alberto Ullastresen, garai hartako Merkataritza ministroak, Supermerkatu Operazioa abian jartzea erabaki zuen. Urte bereko urrian, Madrilgo Barceló merkatuan supermerkatu esperimental bat inauguratu zen, Espainiako gobernuak kudeatutako autozerbitzuen sare bat instalatzeko atak irekiko zituena.

1957ko arrakastaren ondoren, hurrengo supermerkatu publikoa 1958ko abuztuaren 7an inauguratu zen Donostiako Kursaal Handiaren eraikinaren etxabeen. Bost egun geroago Bilbokoak zabaldu zituen atak, eta, beranduago, Zaragozakoak, Gijónkoak, Coruñaakoak eta abar.

Urtebete geroago, 1959ko uztailaren 11n, Bartzelonan, kapital pribatuko lehenengo supermerkatua inauguratu zen. Carbó, Prat eta Botet familiak sortu zuten, eta Caprabo izenarekin bataiatu zuten. Urteen poderioz, supermerkatu publikoak desagertu egin ziren, eta autozerbitzuko saltoki pribatuen sare zabala sortu zen.

Baina zelako eragina izan zuten supermerkatuek denda txikietan? Eta batez ere plazako bendeja-saltzaileengan?

“Inforetail” XXI. mendeko txikizkako banatzaileen eta kontsumoaren inguruan informazioa helarazten duen aldizkariak argitaratu zuen 2016an supermerkatu handiak agertzearen ondorioz, lau urtetan elikadura-lokal txikien % 30 desagertu zela, hau da, beste modu batera esanda, batz besteko sektoreko 15-20 saltoki txiki itxi zirela. Hala islatu zuen Bartzelonako Ekonomia Institutuaren (IEB) “*Small shops for sale! The effects of big-box openings on grocery stores*” ikerketak.

Txostenak 2003tik 2011ra bitartean Espainiako 10.000 biztanletik beherako herrietan erregistratutako kasuetan oinarritzen du bere azterketa, eta supermerkatu bat irekitzeak tokiko elikadura-negozioetan izan duen eragina nabarmentzen du, baita horrek biztanleriaren merkataritza-jardueraren desplazamenduan izan dituen ondorioak ere.

Teknologiaren eragina:

Merkataritza elektronikoa: Merkataritza elektronikoa edo *e-commerce* esaten diogu produktuak eta zerbitzuak online, sare sozialen bidez edo Interneten elektronikoki erosteko edo saltzeko jarduerari. Erosketa eta salmenta mota honek zenbait berezitasun ditu: alde batetik, nonahi dago eskuragarri. Bai etxean, lanean edo beste edozein lekutan, mugikor, tableta,

ordenagailu eta abarren bidez edozein unetan erabili daiteke. Gainera, teknologia muga nazionaletik haratago hedatzen denez, herrialde eta kontinente batetik bestera egin daitezke erosketak inolako arazorik gabe. Halaber, horren beste bereizgarri bat merkataritza elektronikoak berezkoa duen aberasgarritasuna da, hau da, posible da bideo-, audio- eta testu-mezuak transmititzea. Bideoa, audioa eta testua merkaturatzeko mezuak kontsumo-esperientzia eta merkaturatze-mezu bakar batean integratzen dira. Eta kontsumitzaileek modu dinamikoan hasten dute elkarrizketa, horrela, merkatuan ondasunak entregatzeko prozesuaren partaide bihurtzen dira. Salmenta-metodo honen beste ezaugarri bat banakoei eta taldeei, bakoitzaren beharrianen arabera, mezu pertsonalizatuak bidaltzea da.

1. Sare sozialak:

Sare sozialak eragin handiko informazio- eta negozio-iturri bihurtu dira. **Facebooken** adibidez, zuzenean konekta daitezkeen bezerotik bezerorako merkataritza-jarduerak egiten dira, erabiltzaileak sortutako edukiarentzat funtzionaltasun asko eskainiz. Erabiltzaileak/saltzaileak beren produktuen iragarki mugagabeak argitara ditzakete Facebookeko hainbat ataletan, hala nola hormetan, orrialdeetan eta taldeetan. Horiek milaka pertsonak ikus ditzakete eta interesa dutenek saltzaileekin zuzenean jar daitezke harremanetan erosketa-prozesua hasteko, ordaintzeko eta entregatzeko, askotan, plazan gertatzen den moduan, inolako bitartekorik gabe. **Instagramen** kasuan ere, gauza bera gertatzen da, baina Facebookek ez bezala, “Instagram Shopping” izeneko tresna du. Kasu honetan, markei beren produktuen argazkiak argitaratzeko aukera ematen die, prezioarekin eta esteka zuzenarekin online dendara sartzeko aukera emanez.

Sare sozialak, beraz, tresna bikainak bihurtu dira, produktua eta ekimena edozein izanik ere, zuzeneko kontaktu erreza izateko, inolako bitartekaririk gabe.

2. Web-orrialdeak eta online dendak:

Bestelako ekimenez aparte, hala nola “Euskal Herriko Hazien Sarea” edo “Slow Food”, hainbat merkataritza txiki eta nekazaritza badute haien web-orrialdea. Kasu horietan, sare sozialen kasuan bezala, saltzen dituzten produktuen agertokiak izaten dira; txikitasunetik handitasunerako zubia dira. Adibiderik argienak Bizkaian “Bizkaigane” eta Nafarroan “Errigora” ekimenak ditugu. Biek dute web-orrialdea, eta bertatik bezeroaren beharrianak betetzen eta informazioa helarazten saiatzen dira. Halaber, biek ematen dute eskaerak online egiteko aukera.

Baina nolako eragina izan dezakete aurreko bi puntuek bendeja-saltzaileengan?

Argi dago bendeja-saltzaileek baliabide gisa erabili ditzaketela halako aplikazioak. Hala ere, kontuan izan behar da, plaza bera izaten dela haien salmenta-gunerik garrantzitsuenak. Horrek zera esan nahi du: aintzakotzat hartu behar dela arrakala digitala. Gai ezaguna da tresna digitalen erabilera handiagotu egin dela edozein alderditan eta biztanleen ehuneko handi batek zerbitzuak eskuratzeko zailtasunak edo ezintasuna duela. Hori dela eta, urteetan bendeja-saltzaile moduan aritu diren

emakume askorentzat zaila izaten da belaunaldi-aldaketa honetan erabiltzen diren tresna horiek erraztasunez maneiatzea.

Gaur egungo lan munduaren eragina:

Egungo gizarteak lan gehiago eta abiadura handiagoan egitea eskatzen du beti. Denbora tarte murriztu batean ahal den eraginkorrena izatea. Lana areagotzeak, beraz, lanetik kanpoko bizitza laneko ordutegiekin bateraezina izatea dakar. Gure bizitza pertsonalean ere malabareak egin behar izaten ditugu egin nahi dugun guztia aurrera eramateko. Geure buruarekiko eskakizun- eta perfekzionismo-maila altua izaten dugu, eta zorrotzak garen heinean, ez gara gure akatsekiko oso errukigarriak izaten. Hortaz, nork izan dezake bestelako kontuatarako denborarik? Eta gure kasuan hauxe da galdera: zein joan daiteke plazara lan-ordutegiak kontuan hartuta?

Burura zuzenean datorkigun lehenengo pertsona-taldea pentsiodunak dira. Euskal Autonomia Erkidegoan 252.593 emakume pentsiodun daude eta 265.307 gizon. Talde horrek erraztasun handiagoa izaten du aste barruko plaza-egunetara joateko.

Bigarren pertsona-taldea zaintza-lanetan aritzen direnek osatzen dute: 2022an Euskal Autonomia Erkidegoan 12.007 biztanle izan ziren adingabeak zaintzeko eszedentzien eta lanaldi-murrizketen onuradun, eta mendekotasuna duten eta oso larri dauden senitartekoak zaintzeko eszedentzia eta lanaldi-murrizketen onuradunak 448 biztanle.

Azkenik, hirugarren pertsona-taldea langabeena da: 2023ko martxoan Euskal Autonomia Erkidegoan 109.192 langabe zeuden; Bizkaian 61.396.

Hortaz, arestian agertutakoa kontuan hartuta, biztanle zati handi baten joera supermerkatuetara jotzea da. Dela denbora kontuengatik, dela diru kontuengatik, guztia erosketa bakar batean egiteko ohitura dugu, eta ahal bezain arinen egiten ditugu; eraginkorrak izateko beharrezana dugu. Beraz, badaude plazara hurbiltzeko erraztasun handiagoak dituzten pertsona-taldeak; hala ere, ez da biztanleen ehuneko handia.

Bizkaian:

Bizkaiko Foru Aldundiak “Tokiko nekazaritza-produktuak, ekologikoak eta bidezko merkataritzakoak” eta “Tokiko elikagaiak platerera” txostenak argitaratu zituen, “Agenda 2030” ekimena oinarri hartuta, garapen iraunkorreko helburuak bideratzeko asmoz. Bertan azaltzen denaren arabera, kontsumitzen ditugun oinarritzko elikagaietako asko ehunka eta milaka kilometrora dauden lekuetatik datoz. Horrek ingurumen-kostu handiak dakartza, hala nola: energia neurritz kanpo kontsumitzea, garraioak sortutako CO2 isuriak handitzea, landa-paisaia tradizionala desagertzea, jarduera txikiak bertan behera uztearen ondorioz, tokiko barietateak galtzea eta abar.

Ikusitakoa ikusita, gaur egun tokiko eta sasoiko produktuen aldeko apustua egiten da berriro. Bertokoa izateak elikagaiaren jatorrizko lekua eta horixe kontsumitu den lekua arteko arazoizko distantzia adierazten du. Ingurune hurbileko nekazaritzako edo abeltzaintzako

produktuak sartzen dira. Gure landa-eremuetako ezaugarri bereizgarriek lekua egin eta kulturari bultzada bat emateko ekimena dago.

Gutxika-gutxika landako eta tokiko ekonomiak lehentasuna berreskuratu nahi du supermerkatuek izan duten politiken aurrean. Gure paisaiaren nortasunaren elementu aipagarriak eta gure ohiturak kontserbatu nahian, “zero kilometroa” ahoz aho dabilen hitza da.

Sasoiko produktuei ere berebiziko garrantzia ematen ari dira: sasoiaren sasoikoa jateari. Horiek beren ziklo naturalari jarraituz hazi dira, hazkunde hori behartu gabe. Egiaztatua dago sasoiako produktuak kontsumitzea osasuntsuagoa, ekonomikoagoa eta ingurumenaren aldetik iraunkorragoa dela. Halakoak dira Mungiako plazan oraindik ere aurkitu daitezkeen tokiko produktuak.

	FRUTAK	BARAZKIAK ORTUARIAK
UDABERRIA	Marrubiak, gereziak.	Porruak, azenarioak, piperrak, tomateak, tipulinak, baratzuriak, babak, ilarak.
UDA	Melokotoiak, aranak, mizpirondoak.	Piperminak, lekak, kalabazinak, tipulak, letxugak, patatak, tomateak.
UDAZKENA	Sagarra, mahatsa, madaria, intxaurrak, hurritzak, pikuak.	Piper txorizeroak, indabak, garbantzuak, kuiak.
NEGUA	Sagarra, madaria, kiwia.	Azalorea, porruak, aza.

2- HIRUKO GATAZKATSUAREN TAULAK

Bendeja-saltzaileen sorrera	Denbora eta bizitza			
	Emakumea gizartean	Familia barneko emakumea	Emakume pertsona	Loa
<i>Comites</i> emakumea	Haren hitza entzuna da. Boterea du. Egunekeo zati handi bat eskainiko dio zeregin honi.	Ez dio denbora askorik eskainiko, nahiz eta aukera izango duen familiaren arteko harreman sendoak sortzeko. Askotan, harreman politikoak. Izango du familiaren zaintza asetzeko langileren bat. Beraz, kalitatezko denbora eskainiko dio.	Denbora nahikoa eskainiko dio emakume rol hori. Badaki boteretsua dela, eta horrek suposatzen duen guztiaz jakitun da. Pentsatzeko denbora hartu eta bere rola defendatuko du.	Lo egiteko aukera izango du. Atsedeen hartzeko arazorik ez.
<i>Milites</i> emakumea	Lana du eta hezkuntza ere bai. Egunekeo zati handi bat eskainiko die zeregin horiei.	Zaila egin zaigu emakume honen rol familiarra aztertzea. <i>Milites</i> bezala, zuzenean lan egin dezake Jaun edo Andre batentzat, eta, halaber, langileak izan ahal ditu eurentzat. Gainera, hezkuntza jasotzeko aukera du. Beste neurri batean, baina uste dugu <i>Comites</i> emakumearen	Denbora eskainiko dio rol honi. Elikatuko du bere burua, saiatuko da hezkuntza lortzen, lortutako estatusari eutsi ahal izateko.	Ez du lotarako denbora askorik izango. Kanpoko eta barneko beharrek ez diote utziko.

		antzeko rola mantenduko duela familiarekin, baina modu apalagoan.		
<i>Collazos</i> emakumea	Lanak eguneko ordu asko hartuko du.	Bere familiaren ardura beregain hartuko du.	Ez du denbora askorik barne solaserako. Lan asko eta bizi-baldintza latzak izatearen ondorioz, bizirauteko premiazkoa ekintzetan egongo da murgilduta buru-belarri.	Gutxi, kanpoko lanak eta familia barnekoak eguneko ordu asko hartuko ditu.
Bandoetako emakumea	Hezkuntza du, boterea. Egunaren zati handi bat eskainiko dio boterearen nondik norakoak ikertzeari.	Familiaren barnean ere rol autoritarioa mantenduko du. Baina denbora dezente eskainiko dio emakume hori elikatzeari.	Denbora izango du bere burua defendatzeko; horretarako, nor den eta zer behar duen jakingo du.	Lo egiteko aukera izango du.
Bandoetatik kanpoko emakumea	Komunitatean lan egiten du. Eguraldiaren eta beharren arabera izango da.	Baliteke familiaren zaintza komunitatean egitea, bai emakumeak baita gizonak ere.	Denbora topatuko du, bere buruarekin egoteko, pentsatzeko.	Denboraldiaren arabera izango da. Naturaren arabera izango da (hots, baratza landu beharra eguzkiko orduetan, baina ezin landu gauean edo euripean).
XIV mendetik aurrera				
Emakume bendejera	Lan egiten du eta eguneko zati	Apenas ez du lortuko	Apenas ez du izango	Ordu gutxi egingo ditu lo.

herriaren barruan.	handi bat eskainiko dio horri.	emakume familiarra emakume langiletik aldentzea. Egunekeo zatirik handiena rol horri eskainiko dio.	denborarik bere burua zaintzeko. Baliteke lortzea Mungiako plazan, beste emakumeekin batera.	Berandura arte egongo da etxean lanean, barneko zaintzalanetan; eta goiz altxatuko da, berriro ere, etxe barruko zaintzari ekiteko.
Emakume bendejera herritik kanpo: herri zeheko emakumea (bandoaren barruan edo bandotik kanpo) edo Milites taldekoa.	Lan egiten du eta egunekeo zati handi bat eskainiko dio horri.	Apenas ez du lortuko emakume familiarra emakume langiletik aldentzea. Egunekeo zatirik handiena rol horri eskainiko dio.	Milites taldekoa bada, ziurrenik langileak izango ditu. Beraz, denbora zati bat izango du bere buruari eskaintzeko. Bandoetako eta bando kanpoko emakumeak komunitatean lanean irudikatu ditugunez, uste dugu denbora gutxi izango dutela beren buruari eskaintzeko.	Uste dugu Milites taldeko emakumeak lotarako denbora gehiago izango duela, herri zeheko emakumea baino.

Bendeja-saltzaile karlista	Denbora eta bizitza			
	Emakumea gizartean	Emakumea familiarra	Emakumea pertsona	Loa
Emakume bendeja-saltzailea	Andrazkoak ezkontzean lantegietako lana uzten dute,	Etxekoandrea, emazte atsegina, ama arretatsuaren irudia aurkeztea da	Pentsaera-alaketarekin batera, bendejeren	Lotarako asti handirik ez duen emakumea da; goizetik esnatzen

	baina emakume behartsuenak batez ere, bai fabriketan, bai etxean aritu behar izaten dira lanean. Estatistikentzat, hala ere, ikusezin bilakatu dira. Haiena ez da “lan” moduan konprenitzen. Garai honetako landa-eremuko bendejerek baserria ustiatzen dute.	garai honetako emakumeentzat ezarri den helburua. Industrializazioak eraginda, ideia burges horrek garaiko pentsamoldea eraldatuko du XIX. mendean zehar.	bizitza publikoa plazan oinarritzen joan da. Plazan saltzeak bermatzen du bendeja-saltzailearen etxez kanpoko partaidetza.	da plazan leku ona hartzeko. Inguruko baserrikoek ez dute hain bide luzea egin behar Mungiara arte plaza-egunetan. Baina Bilbora joan nahiz gero, bi orduko ibilbidea dute errege-bidetik. Mende amaieran, tren-linea sortzean, 05:00etan edo 05:30ean esnatu behar izango da lehenengo trena hartu ahal izateko. Egun arruntetan ere goizetik esnatzen da baserriko lanak egiteko.
--	--	--	---	--

Bendeja-saltzailea Gerra Zibilean eta Frankismoan	Denbora eta bizitza			
	Emakumea gizartean	Familia barneko emakumea	Emakume pertsona	Loa
Bendejera gerran	Errepublikarren alde zein nazionalen aldekoa izan, zaintza izan zuen eginbehar nagusia.	Emakume langilea eta sendagilea izango da. Ez du amatasuna lantzeko beta handirik izango.	Ez du kasik aukerarik izango hori garatzeko.	Ezer gutxi.
Bendejera	Elizak esandako	Isila. Lan eta lan,	Frankismoaren	Ezer gutxi.

gerraostean	rola mantenduko du: etxe barruan geratuko da, ama bikaina izango da, langilea, familiaren euskarri eta gizona bere gainetik adoratuko duena.	familia lehenetsiko du beti, norberaren beharren aurretik jarrita.	hedapenarekin bat, emakume pertsona lantzearen beldur egongo da. Elizaren jazarpen bortitzagatik.	
-------------	--	--	---	--

Gaur egungo bendeja-saltzailea	Denbora eta bizitza			
	Emakumea gizartean	Familia barneko emakumea	Emakumea pertsona	Loa
Eguno bendeja-saltzailea	Orokorrean ez da jeneroa saltzeaz bizi; beste lanbide bat du. Asko erretiratuak daude. Hala ere, belaunaldi-aldaketa sakona egon arren, hasi dira gazte batzuk ere bendeja saltzen. Urteetan zehar ekimen eta elkarte ugari sortu izan dira. Nekazaritza ogibide dutenek ez bezala, gaur egun, bendeja saltzea ez da beharrian batetik sortutako zerbait. Askok eta askok tradizioari jarraipena emateko eta gustuagatik egiten dute. Baina lehen esan	Familiatan zaintza-lanen banaketaren ehunekoa aldatu egin da urteotan, hala ere, oraindik ere 2021eko Eustaten ikusi daitezkeen zifren arabera, EAEn emakumeek etxeko zaintza eta lanen % 67,2 hartzen dute beren gain.	Garatzeko aukera handiagoak eta anitzagoak ditu. Batez ere egungo garraio eta aurrerapen teknologikoei dagokienez, aurreko mendeetan baino denbora libre gehiago izateko aukera eman die. Hala ere, soroko beharrak eta prestakuntza beharrak eguneroko lanak dira; are gehiago, bendeja saltzeaz gain beste lan bat duen emakumeak karga handiegia izaten du.	Aurreko mendeetan baino lo gehixeago egiteko aukera izango du. Hala ere, barneko zaintzak eta bestelako ogibideak lotarako denbora murriztuko diote. Eta sorotan lan egiteko goizetik esnatu behar da; batez ere eguzkiak gogor jotzen duenean lan gutxiago egiteko. Zenbait produktu iluntzean ureztatu eta

	bezala, badaude plazaz plaza jeneroa saltzen ibiltzen direnak ogibide moduan.			zaindu behar dira. Zentzu honetan, soroaren ordutegia ez dator bat gizarteak onetsitakoare kin.
--	---	--	--	--

ONDORIOAK

Bendeja-saltzaileak negozio bati baino gehiago bizimodu bati heldu dio eta horrek hainbat ondorio ekarri ditu:

1– Bizimodua:

Baserria aipatu dute emakume askok bendejera-lanaren arrazoiaren inguruan galdegin diegunean. Baserriak etxea baino bizimodu bat bermatu duelako: soroa, ganadua eta familia. Zaintzarekin zuzenean lotutako gunea da. Zentzu horretan, bendejera bada baserriko emakumearen aurpegi bat.

Agian, badago baserriaren ustiaketa nolabaiteko askatasunarekin lotzerik. Izan ere, lana bizimoduarekin errotuta dagoenez, ez da bata bestetik bereizi. Hots, norbanakoaren espazio pertsonalaren ustiaketa da. Kanpoko merkatu politikatik at.

Halere, gogorra da. Askatasuna bada, nahiko latza eta krudela.

Egun, plazan ikusi ditugun bendeja-saltzaileen artean bi multzo bereizi ahal ditugu, bendeja saltzera datorren gaztearena eta ohiko bendejera. Lehenengo saltzaileak beste ikuspegi bat du lanaren eta bizimoduaren artean. Bestelako gogoeta bat egin du eta bizimodua eta lana bereizi nahi izan ditu, zaila bada ere.

2– Kapitalismoaren eragina: negozioa

Bendejeraren sorreratik, hots, elizatea eta merkatua sortu eta hasierako produktuen truketik, egungo salmentarako bidean, bendeja saltzea lan gisa ulertu da sistema kapitalistaren barnean. Hara, beste profesioen antzera, harakina, dentista eta abar, bendeja-saltzailea profesioa ere da.

Kontua da beharra arautua egon den bezala, langilea ez dela definitu langilea lez.

Hots, merkatu-egun bat ezarri da eta baldintza batzuk bete behar izan dituzte plazara saltzera joan diren emakumeek. Baldintza horiek onartuak eta arautuak izan dira sistema kapitalistaren barnean. Baina bendejaren atzean saltzen dagoena ez da langile normatiboa. Ez du bere burua langileen multzoan topatu. **Etixerako ekonomia** delakoan, familiaren behar oinarritzkoa delakoan, ez du langilearen estatusa lortu, salbuespenak salbuespen.

Ekonomia familiarra edo etxeko ekonomiaren inguruan hitz egin digute emakume askok. Besteen lana, erretiroa lortzen dutenen lana, gainetik balego bezala. Kanpoko lana balitz bezala eta euren tradizioa, baserria eta izaera. Bereizketa hori egitean, hierarkiaren baten menpe jarri dira, indarkeria mota bat jaso dute.

3– Emakumearen aurkako indarkeria (tranpa bikoitza: negozioa edo bizimodua?)

Nortasunak, ekonomiak eta tradizioak gogor estutu dute emakume bendejera.

Ikerketaren hasieran bota dugu galdera bat: emakumea libreagoa al zen kapitalismoaren aurretik?

Ezinezkoa bazaigu ere galderari erantzuna ematea, ikusi dugu bendeja-saltzaileak bere azalean pairatu dituela ekonomia kapitalistaren ondorio lazgarriak.

Merkatuaren lehia, eroslearen exigentziak, garaiko merkataritzaren erronkak, horiei guztiei egin die aurre, baina sekula ez parez pare; baserritarra den aldetik, haren bizimodua bendeja-saltzailea den aldetik, ez ditu bestelako lanetan dauden erremintak ezagutu sistema kapitalistatik babesteko.

Interesgarria iruditu zaigu ikustea gerra garaian, bandoak bando, garaileak garaile eta galtzaileak galtzaile, bendejeraren lana mantendu dela. Ezinbestekoa izan da. Sostengua. Berdin dio kanpoan beltza edo gorri dagoen, bendeja-saltzaileak jarraituko du merkatura joaten, soroko produktua saltzen eta etxera eramaten trukean familiak beharrezkoa duen adina. Baserria mantentzen jarraituko du, azken batean.

Horrekin batera, zenbait rol ez dira aldatu, ez dira garatu, ez dira arautu; eta, beraz, bendeja-saltzailearen lana isildu edo ezkutatu dute.

Nortasunarekin eta tradizioarekin bat egin duen lanak, karga bikoitza ekarri dio emakumeari. Alde batetik, emakumea denez, bere ardura bezala ulertu duelako eta, bestetik, tradizioa mantentzeko testigua izan delako.

Hori horrela al da beti?

Ez. Interesgarria da ikustea belaunaldi aldaketa. Nola egungo gazte gutxik parte hartzen duten sorotik lortutako produktuak saltzen. Dela denboragatik, dela bestelako interesengatik, gaur egungo plazan ez da gazteen partaidetza handirik ikusten. Horrek beste gogoeta bat zabaltzen digu: egungo emakumeak lortutako askatasun kontzientziaz badago orduko tradizioa mantentzea?

Alde batetik, bizi dugun klima-krisialdiak eraginda, lehengo ohituren balioa azpimarratu egin da. Beraz, bendeja-saltzaileen lana eta betidanik naturarekin izandako errespetuzko harremana zein ezagutzaren garrantzia nabarmendu dira.

Baina, bestetik, sistema kapitalista neoliberalak eraginda, gazteen soldata miserableek kontrajarrian jarri dute belaunaldi berriaren krisi klimatikoaren aurrean duten erantzukizuna eta erosteko ahalmena. Gainera, bendeja-saltzaile langileak ez du oraindik langile estatusa lortu, nahiz eta ekimen batzuk horren bila hasi diren.

Tradizioa ez galtzeko, iraultza oso bat behar da. Beraz, beste galdera bat egin nahi dugu: posible al da sistema kapitalista batean emakumea libre izatea? Are gehiago, posiblea da gaztea izanda tradizio horri jarraipena ematea? Badu lekuri plazak egungo bizimoduan?

Aukera egon edo ez, herritarrak (erdi-mailakoak) badu pribilegio bat, leku askotan izango ez duena, hots: ostiralean, Mungiako plazatik pasatzea, eta baserritik zuzenean ekarritako produktuez gozatzea. Ez dira asko, egun, tradizioen bidez eta sinesmen errotu baten bidez elikatzeke aukerak.

Disfruta dezagun bendejera lehen lerroan jarrita eta emakume horien biziera ikusarazi eta txalokatuta.

BIBLIOGRAFIA

Bibliografia:

- *El primer recetario medieval de la cocina española*, Sent Soví
- *El cocinero religioso*, Antonio Salsete
- *El perfecto licorista. o Arte de destilar*

Labayru Fundazioa (2021) *Bendejerak. Sorotik plazara.*

Labayru Ikastegia (2012) *Mungia. Bizimodua eta ohiturak.*

Estonés Zubizarreta, I.; Caspitegui Gorasurreta, F. J. (d. g.) *Karlismoa eta Karlista gudak. Auñamendi Eusko Entziklopedia.*

Pirala Criado, A. (1869) *Historia de la Guerra Civil y de los partidos Liberal y Carlista. Tomo 1 y 2.*

Buenaventura de Córdoba (1844) *Vida militar y política de Cabrera. Tomo 1.*

González de la Cruz, R. (1849) *El vengador y la sombra de Cabrera.*

Fernandez Benitez (1988) *Carlismo y rebeldía campesina. Un estudio sobre la conflictividad social en Cantabria durante la crisis final del Antiguo Régimen.*

Gómez, Gumersindo (1896) *Cómo se vive y cómo se muere en Bilbao: reseña demográfica de la I. Villa.*

Pérez-Fuentes Hernández (2004) *Ganadores de pan y amas de casa. Otra mirada sobre la industrialización vasca.*

Fernandez de Pinedo, E.; Hernández Marco, J. L. (1988) *La industrialización del norte de España.*

Rodríguez de Coro, F.; Bullón de Mendoza, A.; Real Cuesta, J.; Vidal-Abarca, J.; Mundet i Sifré, J. M.; La Parra López, E.; Ugarte, J.; Garmendia, V.; Cerrato, J. M.; Tuduri, J. M. Sesmero Cutanda, E.; Gómez, C. (1991) *Los Carlistas (1800-1876)*

Barcenilla, M. Á.; Ramirez de Okariz, I. (2023) *Etapas de la industrialización en Euskal Herria. Los orígenes. 1842-1976. Auñamendi Eusko Entziklopedia.*

Larrinaga Larrabeiti, I. (2013) *Mungiako Euzko Alderdi Jertzailearen historia (1892-1936).*

Caridad Salvador, A. (2011) *Las mujeres durante la primera guerra carlista (1833-1840).*

Pareja Alonso, A.; Zarraga Sangroniz, K. (2006ko apirila) *Bizkaiko emakumeen lanbideak eta zereginak. Atzoko eta gaurko irudiak.*

Pemo, J. (2014ko abuztuaren 3a) Mungia en el oasis de Juan Mañé y Flaquer. *Mungia historian zehar.*

[https://curiosfera-historia.com/quien-invento-el-supermercado-historia/#:~:text=El%20inventor%20del%20supermercado%20es,Piggly%20Wiggly%20\(cer%20ondulado\).](https://curiosfera-historia.com/quien-invento-el-supermercado-historia/#:~:text=El%20inventor%20del%20supermercado%20es,Piggly%20Wiggly%20(cer%20ondulado).)

<https://www.economiasolidaria.org/recursos/biblioteca-la-distribucion-moderna-la-invasion-de-los-supermercados/>

Tendencias de consumo del siglo XXI:

https://www.um.es/docencia/pguardio/documentos/consumo_XXI.pdf

¿Cuál es el origen de los supermercados en España?

<https://blogs.20minutos.es/yaestaellistoquetodolosabe/tag/cual-fue-el-primer-supermercado-en-espana/>

Evolución de los hipermercados en España:

<https://www.eumed.net/tesis-doctorales/2006/pcv/1p.htm>

La batalla entre el supermercado y el pequeño comercio

¿Cómo afecta la apertura de una gran superficie a los locales de alimentación?

<https://www.revistainforetail.com/noticiadet/la-batalla-entre-el-supermercado-y-el-pequeno-comercio/7e05c132777c22bdaa3945481364caaa#:~:text=%2D%20La%20aparici%C3%B3n%20de%20grandes%20supermercados,20%20peque%C3%B1os%20comercios%20del%20sector.>

PRODUCTOS AGRARIOS LOCALES Y DE COMERCIO JUSTO

https://www.bizkaia.eus/documents/880311/9767048/Productos_agrarios_locales_ecologicos_comercio_justo.pdf

https://www.bizkaia21.eus/fitxategiak/09/bizkaia21/Saber/Tokiko%20elikagaiak%20platerer_a.pdf?hash=cd0e81513e0516578da1997a5505c1da

Merkataritza elektronikoa:

https://es.wikipedia.org/wiki/Comercio_electr%C3%B3nico

<https://www.innovadeluxe.com/ventajas-y-desventajas-del-comercio-electronico/>

Bizkaigane:

https://www.bizkaigane.eus/index_es.html

Errigora:

<https://www.errigora.eus/es/quienes-somos>

Arrakala digitala:

<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/-/albiste/2022/arrakala-digitala-eta-bazterketaren-arriskua-osasunerako-eta-zainketetarako/>

<https://www.xataka.com/empresas-y-economia/riesgos-salud-laboral-bajan-plano-fisico-aumentan-mental-carga-ritmo-trabajo-ha-aumentado-ultimos-anos>

<https://abcblogs.abc.es/patricia-ramirez-psicologia/desarrollo-personal/slow-life-o-por-que-debo-bajar-el-ritmo-de-vida.html>

Pentsiodunak EAEn:

<https://www.epdata.es/datos/pensiones-comunidad-autonoma-graficos-datos/34/pais-vasco/308>

Mujeres y hombres en la C.A. de Euskadi. 2022: Corresponsabilidad y conciliación

<https://www.eustat.eus/igualdad/8demarzo/08032022.html#:~:text=el%20periodo%20analizado.-,2.,de%20uso%20de%20tiempo%202018.>

Panorama estadístico de las personas mayores 2021:

https://www.eustat.eus/elementos/ele0019000/panorama-estadistico-de-las-personas-mayores-2021-pdf-34-mb/inf0019081_c.pdf

Cifras 2020. Mujeres y Hombres en Euskadi. EMAKUNDE.

https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio_cifras/es_emakunde/adjuntos/cifras_2020.pdf

Zaintza lanetan EAEan:

<https://www.diariovasco.com/gipuzkoa/vascos-reducen-jornada-cuidar-hijos-20230306175349-nt.html>

En la C.A. de Euskadi las mujeres asumen el 67,2% de los cuidados y tareas del hogar:

https://www.eustat.eus/elementos/en-la-ca-de-euskadi-las-mujeres-asumen-el-672-de-los-cuidados-y-tareas-del-hogar-/not0018351_c.html

*Ahotsik gabeko istorioak, Sebastián Piedrabuena Fernández
Gerra zibila Euskal Herrian, Ekain Mtz. Lizarduikoa, Nekane Osa*